



## Azken agurra Jon Barcenari

Jon Barcena Amezuari azken agurra eskainiko diote gaur arratsaldean Berrizko frontoian. Atzo, berriz, lurretako Orobiogoitia Institutuko ikaskideek eta irakasleek gogoratu zuten gazte berriztarra, ekitaldi hunkigarri batean. • 5

## Eneko Sagardoy: “Otsailaren 3a pasatuko da eta beste proiektu berri batzuk iritsiko dira. Ez dut honetara ohitu gura”

**Antzerkia** | Goya sarien banaketaren bezperan, Eneko Sagardoy eta Miren Erdoiza lehengusu-lehengusin eta antzerki kideak elkartu ditugu. Harreman berezia dute taula gainean zein kanpoan. Ikastolako antzerki taldeak (egun, Erdoiza da bertako koordinatzailea) eta Karrika Antzerki taldeak Sagardoyren formakuntzan izan duten eraginaz solastu dira, besteak beste. Horrez gainera ANBOTOK, ‘Handia’ko zuzendarietako bat den Aitor Arregigaz ere egin du berba; Arregi Sagardoyren irakaslea ere izan zen unibertsitatean. • 2-4



## Gazte alokairuko sei etxeak hilabete barru eskuragarri

**Durango** | Hilabete barru Faus-tegoinako gazte alokairurako 6 etxeak eskaintzeko prozesua abiatu gura du Durangoko Udalak. 18 eta 30 urte artekoek eskatu ahaliko dute etxea. Diru sarreraren arabera ezarriko dute errenta, 150-300 euro artean. 7



**LIKIDAZIOA**  
%70erainoko deskontuekin

**gandarias**  
Interiorismo

Arkotxa kalea, 6 - 48200 Durango - info@mueblesgandarias.com - Tel.: 94 681 07 22

## “Nerabegaroko etapa Karrikan eta San Agustinen igarotzea babesleku batean sartzea izan zen”

Modu batera edo bestera, Eneko Sagardoy, Miren Erdoiza eta antzerkia beti egongo dira lotuta. Goya sarien banaketaren atarian, ehundu duten harremanaz solastu dira.

### ANTZERKIA •

**Eneko Sagardoy eta Miren Erdoiza lehengusu-lehengusinek batera eman zituzten antzeppen munduko lehen pausoak, Kuruziaga Ikastolan eta Karrika antzerki taldean. Konexio berezia dute Mujikatar biek, eta unibertso horretako ateak ireki dizkiote ANBOTOrri.**

**Indioak eta bakeroak. Amaitermin. Tio Andoniren brasa usaina. Zer datorkizu burura?**

Ohe gainean dudan argazki zoragarriri bategaz gogoratzen naiz. Ni bu-

“

**Atzera begiratu gero, Eneko oso komiko bat ikusten dut, eta hori berreskuratu beharko nukeela uste dut”**

—

“

**Karrikaren bidez, antzerkiaren eragin sozialki eraldatzaile hori presente eduki dut”**

—

rua lumaz beteta dudala, eta lehengusu denak urduri, gure bizitzako antzezlanik garrantzitsuen balitz bezala. Oso serio hartzen genuen. Ni beti sentitu naiz oso umoretsu, eta oso serioa aldi berean.

**Oso profesionalak sentitzen ginen.**

Txikitatik eduki dut gauzak egiteko kemena. Gauzak ondo egitearen kontua oso sartuta izan dut beti. Gizontxo bat sentituko nintzen, guztia kontrolatu guran. Zorionez, gaur egun deskontrol egoeretan bastante hobeto sentitzen naiz.

**Abuztuak 13. Miren Show. Protagonismo behar bat genuen. Gaintzekoek konpetizioan, baina guk ez genuen errekonozimendurik izaten abuztuaren 13ra arte.**

Hura zen nire motibazioa sasoi horretan. Beste gauza batzuk egiten aspertu egiten nintzen, eta antzerkia egitea zen dibertigarriena.

Berdina gertatu izan zait bizitzako beste hainbat etapatan ere. Teorian gustuko izan beharko nituzkeen gauzengatik interes gutxi agertu dut, edo ez naiz abila izan. Aldiz, eroso sentitu izan naizen mundua asmatutakoa izan da. Oso ondo pasatzen nuen jolasten, eta guk biok protagonismo itzela genuen.

Umea zarenean, txaloak jasotzea gura izaten duzu, eta guk antzerkiaren bidez jasotzen genituen. Itzela muntatzen genuen, eta jendea ikustera etortzen zen.

**Zenbat ordu igaro ditugu ikastolan entseatzeko, karrajo eta eskalera arteko txoko propioan?**

Orain dela gutxi garai horiek gogorarazi zizkidaten: belauniko, zapatilak belaunetan ezarrita nituela, ipotx bat ematen nuela. Horrelakoak gogorarazten dizkidatenean konturatzen naiz, beharbada berreskuratu beharko nukeela erlaxatuta egon eta disfrutatzea; ikustea gai naizela oraindik barrea eragiteko. Orain arte egin ditutan lanak, Heriotza Bikoitza izan ezik, guztiz dramatikoak izan dira. Garai horietara begiratu gero, Eneko oso komiko bat ikusten dut eta hori berreskuratu egin beharko nuke.

**Antzerkiari edo dramatizazioari lo-**

**tutako irudi gehienak ikastolagaz lotzen ditut. Horra heldu ziren baita Izar, Mattin eta Zerribarne ere.**

Ikastolak zeozer eman badit, ikaskide eta abarrez gain, umorea izan da. Umora absurdo bat garatu dut bertan. Horrez gain, jolasteko espazio bat ere eman dit. Maiz galdetu diot neure buruari ikastolara joan izan ez banintz ez nintzatekeela honetara dedikatuko. Oraindik gogoratzen naiz ze urduri egon nintzen Ikastolako antzerki aurreko udan.

Antzerkiak proban jartzen zaitu adin horretan.

**Karrika iritsi zen gero. Txotxek [Jose Martin Urrutia, irakaslea] itzaroteko esan zigun, gazteak ginela, gogoratzen duzu? Gerora konturatu naiz gu babesten zebilela.**

Guri antzerkiaren mundu zoragarraren ateak parez pare zabaldu zitzaizkigun. San Agustinen sartu eta lurralde berri batera sartzea bezalakoa zen. Aldi berean, antzerkiak eragiten dituen tentsioa eta

beldurra erakutsi zizkigun, eta baita publikoari obra erakutsi aurretik egin beharreko lan guztian kolektiboak duen garrantzia ere.

Nire kasuan, Karrikak antzerkia baino gehiago eman dit, eta hori niretzat antzerkia nire naturaren parte dela. Karrikaren bidez, antzerkiaren eragin sozialki eraldatzaile hori presente eduki dut. Kanpotik Durangora etorri den jendearengana hurbiltzeko aukera eman dit, adibidez.

Karrikak antzerkia eta borroka soziala presente ditu. Karrikak emakume gorputza eta ahotsa ditu, eta gizonak boterea zuten espazioetatik iritsita, ez da gutxi niretzat. Ordura arteko nire erreferentzia guztiak gizonetakoak ziren. Ez genuen deskubritu antzerkia bakarrik, harremantzeko modu bat ere deskubritu genuen; ezberdintasunak onartu ez ezik, indartzeko sistema bat; iritziak trukatzeko modu bat, sentsibilitatea nola landu, bizitza osorako diren erreferentzia estetikoak eta musikalak... Karrika, antzerkia, eta mila gauza dira. Pertsona baten garapenerako, nerabegaroko etapa garrantzitsua Karrikan eta San Agustinen igarotzea babesleku batean sartzea izan zen. Barrutik kanpora eraldatu ninduen.

**Brigitte eta Philip iritsi ziren gero. Guretzat lehen esperientzia profesionala**



**Eneko Sagardoy**  
**Mujika**  
Antzezlea

**Durango | 1994**





LEHIOR ELORRIAGA

#### zen. Inflexio puntu bat izan zen.

Nik ahalik eta pertsonaia gehien egin gura nituen. Lotsatia nintzen, baina izateko arrazoi bat nuen pertsonaien bidez, edozer planteatzeko askatasuna nuen, denak balio zuen.

Ondo eta gaizki, ona eta txarra kontzeptuen artean lehenbiziko apurketa Karrikan izan nuen. Edozer egin nezakeen, denak balio zuelako. Nik ordura arte ez nuen hori jaso.

Karrikak izaera iraultzailea izan du beti. Kanean esaten ez genituenak oholtzan esaten genituen.

#### 18 urteak iritsi zitzaizkigun gero. Eta helduagoak egin ginen.

Bai, noski. Gu antzerkiagaz hazi gara eta antzerkiak hazi gaitu gu. Antzerkiak guri asko erakutsita heldu ginen 18 urteetara, eta gure parte handia zela sentituta. Orduan, helduen rolak hartu behar izan genituen. Nik erreketeta zuk amabirjin herritar bortxatu baten paper oso bortitzak egin behar izan genituen.

Beste pertsona batek beste bide batzuetatik jasotzen duen informazioa edo esperimantazioa guri antzerkiak eman dizkigu, eta paper horietan sartu behar izaten ginen, gainera.

**Lurra Astinduz. Krisi betean harrapatu gintuen, zer egin jakin barik edo. Ez naiz damutzen hartutako erabakia-**

“**Antzerkiko jendeagaz lengoaia propio bat eraikitzen da, ez hobia, ez okerragoa, berezia**”

“**Momentu batzuetan, ‘denari bai’ esateko tendentzia horrek ez dit behar beste disfrutatzen utzi”**”



#### gaz, baina ez dakit berriz egingo nuen.

Ez naiz damutzen egindako ezer-taz. Oso gaizki planteatuta dago 18 urtegar horrelako erabakiak hartu behar izatea; batetik, inguruak ematen dion garrantziagatik, eta, bestetik, norberak ez dakielako zein aukera dauden. Eta paradoxi-koa da, baina kosta zitzaidanagaz karrera aukeratzea, azkenean ia ez nuen unibertsitatea zapaldu, asko ikasi nuen arren. Gerora konturatu naiz berdin dela zer ikasten duzun, beti guztiagaz ikasiko duzula bizit-zarako. Oso bigarren mailan ikusten dut bere garaian hainbeste pisu zuen ‘Zer ikasi?’ hori.

#### Askotarik ditut zuzen, entseguak. Antzerki aurreko erritualek obrek besteko garrantzia dute.

Biok eman diogu garrantzi handia umoreari, eta oso potentea da hori. Erreferentzia berriak sortzen dira hainbat unetan, eta horiek umore-eraman daitezke. Hori da, nire ustez, nire arma garrantzitsua.

Guk denetik egiten ikasi dugu: furgoneta bete eta hustu, adibidez, eta, horri esker, hori egiten duena beste modu batera zaintzen eta baloratzen duzu. Eta hori da, gaur egun, aktore ezagunak ikusten ditudanean gehien baloratzen du-dana. Filmazioek irauten duten bi hilabeteetan, lankidea lagun min bilakatzen da, eta lana bukatzean desagertu egiten da.

Erritualei dagokienez, beti itzultzen zara zoriontsu izan zaren momentu horietara. Nire kasuan, azkeneko hamarkadan momentu horiek errepikatu egiten dira. Antzerkian deskubrimenduak beste erritmo batean egiten dira, lengoaia propio bat eraikitzen da antzerkiko jendeagaz, ez hobia ez okerragoa, berezia; ulertzen duzu modu batera jokatu dezakezula, eta jende horrek ulertuko zaituela. Horregatik diot etxea dela antzerkia, oso nirea den lekua bezala ulertzen dudalako.

#### Inunganen etxerik ez zuten bi per-

#### tsona ziren Ibra eta Moha. Ibraren eszena zeuk idatzi zenuen.

Karrikak beti jarri dizkigu aurrean injustizia sozial eta politikoak. Zorionez, immigrazioaren gatazkak ez nau hain hurbiletik jo, eta paso egin nezake. Antzerkiak, ostera, aurpegi aurrean jarri dizkit, erakutsi dit zein pribilegiatu jaio naizen.

Ni aktorea naiz, aktuatzen dudalako, baina nik idatzi, zuzendu eta sortu egiten dut. Gauza guztien gaintetik sortzaile sentitzen naiz.

#### Goenkaleko fasea iritsi zen ostean.

Momentu gris asko eduki ditut, eta zuk ondo dakizu hori. Nire ‘Danari bai’ esateko tendentzia horrek gaintitu izan nau, eta ezin izan dut disfrutatu nik gura beste. Ia ez dut gogoratzen Goenkale, unibertsitatea eta Karrika batu zitzaizkidan urtea. Baina dena egin gura izate horrek gogortu ere egiten zaitu, eta, orain, proiektu bakarrean lan egin ahal izanda, espazio pilo bate-gaz sentitzen naiz. Ez nuke aldatuko egindako ezer.

#### Zenbait proiekturen artean aukeraketa egitea ez da erraza izan beti.

Egia da hori. Momentu oso gozoan nago orain, baina *Handia* eta beste gauza baten artean aukeratu beharra zegoen, eta eskerrak zuei. Profesionalki, galdera ikur oso potoloak izan ditut mahai gainean, beste edonork izan ditzakeen bezala, baina, nire kasuan, publikoak izaten dira proiektuak. Pixkanaka pentsatzen nabil zein den eduki gura dudana bizimodua.

#### Handiaren filmazioa gogorra izan zen?

Nire bizitzan igaro ditudan bi hilabete onenetakoak dira. Ez dut ia oroitzen pertsona moduan zer bizi izan nuen, baina pentsa, Gusturago nengoen lanean, kanean baino! Lan hau oso berezia da, eta zaila da hitzez azaltzeko. Presio handia nuen, batez ere, nire buruarekiko. Oraindik ere badut sentsazio hori, ‘Nola iritsi naiz ni hona?’. Ofizio honek badu beste alde bat, alfonbra gorria, kontaktuak egitea... Hasi-eran deserosoa zitzaidan, baina asko ikasi dut azken asteetan, eta orain gustura nago. Beldurra dut, baina beste batzuetan nire buruari aprobetxatzeko esaten diot. Hantxak lurrean edukitzeko modu bat da. Otsailaren 3a pasatuko da, eta gero beste proiektu batzuk etorriko dira. Ez dut honetara ohitu gura.

#### Otsailak 3. San Blas jaiak Abadiñon, eta Goya sariaren gala Madril.

Nire desio handiena egun horretan disfrutatzea da. Badakit tentsio barik ez naizela egongo, baina disfrutatzea gura dut, saria eramanez edo ez. Horrek galdu du jada pisua. Irabazi egin gura dut, noski, baina lasai nago. Proiektu berrietan lan egitea da gura dudana, eta nominaturik egoteagatik lana egiteko aukera berriak baditut, nahikoa.

# “Oso erraza egin zitzaidan Eneko ikaslearen eta Eneko aktorearen arteko pareta hori botatzea”

Goya sarien banaketara hamahiru hautagaitzagaz aurkezuko da bihar ‘Handia’ filmeko lan taldea



**Aitor Arregi Galdos**

Zuzendaria  
**Oñati | 1977**

**ERREPORTAJEA • ARITZ MALDONADO**  
**Handiako grabazioaren aurretik ere elkar ezagutzen dute Aitor Arregik eta Eneko Sagardoyk. Izan ere, zuzendari-aktore harremana izan aurretik, irakasle-ikasle harremana zuten. Aktore durangarragaz batera, Arregik ere Goyarako izendapena jaso du Jon Garañogaz batera Handian egin duen zuzendari lanagatik.**

**Hamahiru hautagaitza dituzue. Presio handia duzue?**

Egia esan, lasai gaude. Ez dugu presiorik. Guretzat, hamahiru izendapenagaz hor egotea espero ez genuen garaipen bat da; beraz, zentzu horretan, lasai gaude. Orain lasai gaude, baina, beharbada, gaur-

tik aurrera zerbait gehiago igarriko dugu, eta urduriago jarriko gara. Azken finean, hainbat Goya sari dira jokoan daudenak. Batzuetan indartsu gaude, beste batzuetan ez hainbeste, baina gogotsu gaude zer gertatzen den jakiteko.

**Kritikaren zein publikoaren aldetik, kritika oso onak eduki ditu. Pozik pelikulak egindako ibilbideagaz?**

Oso pozik gaude. Orain dela hilabete batzuk ez genuen inondik ere espero pelikulak horrelako ibilbidea izatea. Donostian hasi zen, eta indartsu irten zen bertatik. Eskerrak horrelako festibal inportante batean lekua hartu ahal izan genuela, horrek indarra eman baitzion. Kritika aldetik ere oso ondo funtzionatu du orokorrean, eta jende asko joan da filma ikustera estreinatu zenetik. Jendeak ondo erantzun

zuen. Hortik aurrera, erraza izan da; handitzen joan da, eta azkenean kolofoia nominazioena izan da. Promozio kontuekin-eta ibili gara, eta festibaletan pelikula defendatzea ere tokatu da, baina neke polit bat izan da hori.

**Maiz nabarmendu duzue aktore taldearen lana, tartean, Eneko Sagardoyk meritu handia duela Miguel Joaquín Sinesgarri bat lortzen.**

Bai, Enekok berak sortu du Miguel Joaquín. Guk egin duguna, sorkuntza horretan laguntzea izan da, horretarako ahal diren bitarteko denak jarrita. Meritu itzela du, pertsonaia bat sortu behar duzulako, hasieran normala dena, gero erraldoi bihurtzen dena, eta handitzen doana eta barrutik ere handitzen doana. Ez bakarrik hezurak, baita organoak ere, eta horrek pertso-

narengan ze eragin duen erakutsi behar duzu. Hori ez da erraza, eta Enekok tekla egokiak sakatzen asmatu du, eta ikusten da meritua, errekonozimendu handia jasotzen ari baita. Baina guk uste dugu, bere anaiaren paperean Joseba Usabiagak lagundu diola pertsonaia handitzen, eta, aldi berean, Enekok lagundu diola Josebari handitzen. Azken finean, **Handia** bi anaiaren arteko istorioa da. Aktore talde

“**Nahiko azkar ikusi genuen erraldoia sineskor geratzen ari zela, eta horrek lasaitu egin gintuen**”

osoak lan itzela egin du.

**Eta, teknikoki, buruhauste asko eragin dizue grabaketak?**

Eguneroko azterketa moduko bat izan da; beharbada, egun batean ondo irtetzen zenak hurrengo egunerako ez zuelako balio. Bagenituen alternatibak, baina ez kontrol osoa. Beti zegoen efektu arduradunaren laguntza; hainbat departamenturen batura izan da: Eneko bera, makillajearena, efektuena, jantziarena. Nahiko azkar hasi ginen ikusten pertsonaia sineskorra geratzen ari zela, eta horrek lasaitu egin gintuen.

**Sagardoy ikasle edukitzeak izan zuen eraginik aukeraketan?**

Ez. Eta, batzuetan, norbaitegaz loturak izatea zaildu egiten du kontua. Eneko mila saltsatan dabilen pertsona bat da, eta guztietan ondo. Etortzen zenean oso ikasle fina zen, jantzia eta interesgarria, eta ekarpen handiak egiten zituen. Gaztea izan arren, agerikoa zen asko bizitakoa zela. Hau egitera etorri zenean, hasieran arraroa egin zitzaidan; Jonek [Garaño] hasieratik argi zeukan, eta proba egin eta gero hautagai nagusi bilakatu zen; fisikoa egokia zen, eta bere meritua osoz posizionatu zen. Gero, niri oso erraza egin zitzaidan ikasletik aktorerako pareta hori botatzea; beti dago entzuteko eta ekarpenak egiteko prest.

“**Enekok berak sortu zuen Miguel Joaquín; guk sorkuntza horretan lagundu egin genion, bitartekoekin**”

“**Ez dugu presiorik, guretzat garaipen bat da hamahiru izendapenagaz bihar Goya sarietan egotea**”

**anboto**  
komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9  
48215 Iurreta - Bizkaia  
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523  
Publizitatea: 946 217 902  
publi@anboto.org

2018ko urtarrilaren 26a  
16. urtea - 706. alea

Lege gordailua:  
BI-2268/01  
ISSN:  
1578-7028  
Tirada:  
11.500 ale



**Bizkaia**  
foru aldundia  
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



**EUSKO JAURLARITZA**

**GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

## Jon Barcenari azken agurra egingo diote Berrizen, gaur arratsaldean

Atzo lurretako Orobiogoitia Institutuko ikaskideek azken agurra egin zioten gazteari. Ekitaldian, berriztarraren klasekideek hainbat mezu zituzten puxikak bidali zituzten zerura



Lurretako Orobiogoitia institutuko ikaskideek azken agurra egin zioten atzo.

### BERRIZ • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Familiarteko, lagun eta herri-  
kideek azken agurra egingo diote  
gaur Jon Barcena Amezuari, Berriz-  
ko frontoian. Senide eta lagunek  
antolatuta duten ekitaldia 19:00etan  
hasiko da.

Atzo, berriz, lurretako Orobi-  
goitia Institutuko ikaskideek egin  
zioten azken agurra gazteari. In-  
stitutuko ikasle eta irakasleek an-  
tolatutako ekitaldi hunkigarrian  
ehunka lagun batu ziren. Bertan,  
Jon Barcenaren arrebari eta gura-

soei lore-sorta eskaini zieten ikaski-  
deek. Horrez gain, Orobiogoitiako  
ikasle bik *Xalbadorren Heriotzean*  
abestia kantatu zuten eta, ostean,  
gaztearen omenezko bertsoak  
abestu zituzten. Ekitaldiari amaie-  
ra emateko, gaztearen ikaskideek  
puxiketara mezuak sartu eta zerura  
askatu zituzten.

### Boluntarioek aurkitu zuten

Abenduaren 30ean Gorbeia men-  
dian desagertu zen gaztearen gor-  
pua bere familiarteko eta lagunek

aurkitu zuten joan zen domekan,  
Urrunagako urtegi inguruko ba-  
soan. Domeka goizean 105 lagun  
irten ziren Berriztik, autobus bitan,  
aurrez Ertzaintzak miatu zuen  
zonaldea berriz ere arakatzeko as-

### Jon Barcenaren senitartekoei lore-sorta eskaini zioten gaztearen ikaskideek

moz. “Denbora aurrera zihoan eta  
ezin ginen geldirik egon. Horrega-  
tik erabaki genuen zonaldea berri-  
ro arakatzeko”, azaldu zuen bilaketa  
taldeko berriztar batek. “Araketa  
sakona egin eta, gutxienez, toki bat  
deskartatu gura genuen, hemen  
inguruan egon zitekeen ala ez jaki-  
teko”, adierazi zuen berriztarrak.

Eremua hiru zatitan banatu zu-  
ten, eta horietako batean aurkitu  
zuten gaztearen gorpua. Bilaketa  
taldekoek azaldu zuten, arropak  
agertu ziren tokitik 150 metrora

### Boluntarioek aurkitu zuten gazte berriztarraren gorpua, Urrunagako urtegi ondoko basoan

gutxi gorabehera aurkitu zuten Jon  
Barcenaren gorpua.

Horrez gain, astelehenean egin  
zioten autopsia Gasteizko Auzitegi-  
ko Patologiako zerbitzuan 20 urte-  
ko gazteari eta Ertzaintzak jakitera  
eman zuenez, hasierako azterke-  
tak, eta baita autopsiak ere, baiezza-  
tu zuten berriztarraren gorpua ez  
zuela ez biolentzia zantzurik ezta  
kriminalitate zantzurik ere.

### Dolumin mezuak sareetan

Bestalde, sare sozialak dolumin  
mezuekin bete dira aste honetan.  
Arnaldo Otegik eta Fermin Etxe-  
goienek, esaterako, elkartasun me-  
zuak idatzi dituzte; baita bilaketa  
lanetan laguntzen ibili ziren Pou  
anaiek ere. Berrizko Udalak ere bat  
egin du herriko gaztearen fami-  
liaren saminagaz, eta babeseta eta  
elkertasuna erakutsi dizkiete sare  
sozialen bidez.

## Mindfulness ikastaroan izena emateko aukera dago Berrizen

### BERRIZ • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Pentsamendu, sentsazio fisi-  
ko, emozio eta sentimenduak  
zehaztasun handiagoz nabari-  
tzen ikasteko asmoz, *Mindfulness*  
ikastaroa antolatu dute Berriz-  
en. Tailerraren antolatzaileek  
jakitera eman dutenez, ikastaro  
honetan emakumeen ahaldu-  
ntzea, norberaren zaintza eta  
autonomia landuko dituzte adi-  
men emozionalaren eta *mindful-  
ness*aren praktikagaz.

Berrizko Jabekuntza Eskola-  
ren barnean antolatuta dagoen  
tailerrean izena eman gura du-  
tenek otsailaren 6a baino lehen  
egin beharko dutela adierazi  
dute, prentsa ohar bidez, ikasta-  
roko antolatzaileek.

Horrez gain, ikastaroaren  
inguruko informazio gehia-  
go gura duenak *gizarte3@be-  
rriz.eus* helbidera idatzita edo  
946824525 telefono zenbakira  
deituta jaso ahalko duela jakite-  
ra eman dute.

### Ikastaroa, eguaztenero

Ikastaroa eguaztentero izango  
da, 16:30etik 18:30era bitartean.  
Bertan, 12 urtetik gorako ema-  
kume berriztarrek parte hartu  
ahalko dute.

Lehenengo saioa otsailaren  
7ko eguaztentero izango de-  
la eta ikastaroak maiatzaren  
30era arte iraungo duela adie-  
razi dute.

## Kike Amonarrizen berbetan, euskararen alde “erabaki estrategikoak hartzeko momentua” da oraingo hau

Martxoan Euskaraldiaz arduratuko den batzordea martxan jartzea da helburua; otsailean ere saioa egiteko asmoa dute

### ZALDIBAR • A.M.

Euskaltzalez bete zen eguaztentero  
liburutegi zaharra Kike Amonarri-  
zen hitzaldia entzuteko. Amonarri-  
zen berbetan, euskara bidegurutze  
batean dago, aldaketa asko egon  
direlako denbora gutxian. Adibide  
moduan, belaunaldi eleaniztunen  
sarrera, krisi ekonomikoaren on-  
dorio linguistikoak eta internet  
aipatu zituen. Hala ere, aldaketa  
positiboak ere aipatu zituen telebis-  
tako aurkezleak, hala nola Araban,  
Bizkaian eta Nafarroan “euskara-  
rekiko jarrera ona dela”. Horrez  
gainera, “ulermenari” orain ema-  
ten zaiona baino garrantzi gehiago  
eman behar zaiola azpimarratu  
zuen. “Datuek erakusten dute *im-  
passe* egoera batean gaudela; beraz,  
hau da unea erabaki estrategikoak

hartzeko euskararentzat”, esan du.  
Euskaraldiak inertzia astintzeko  
ariketa bat izan gura du antolatzaile-  
en berbetan.

### Bi saio egingo dituzte, otsailaren 21ean eta martxoaren 7an; hor abiatuko da batzordea

Aurrera begira, euskaraldiak bi  
saio egingo ditu taldea abiatzeko  
helburuagaz: lehenbizikoa otsai-  
laren 21ean izango da; bigarrena,  
berriz, martxoaren 7an egingo da.  
Euskaraldiari ekingo dion batzor-  
dea bertan bildutakoekin abiatzea  
izango da asmoa.



Kike Amonarriz Zaldibarko liburutegi zaharrean.

## Arrapalak egin dituzte, espaloiak irisgarriagoak izan daitezten

### IZURTZA • JOSEBA DERTEANO

Durango, Izurtza eta Mañaria  
espaloia luze batek batzen ditu.  
Ibilbide horretako hainbat to-  
kitan baserrietarako eta auzoe-  
tarako sarbideak daude. Puntu  
horietako espaloia zatiak ez zeu-  
den irisgarritasun neurrietara  
egokitu. Horregatik, udalak  
lanak burutu ditu gune horiek  
irisgarriago egiteko. 18.500 eu-  
roko diru atala bideratu dute  
horretarako. Lanak Bermeosolo  
enpresari esleitu zizkieten, eta  
hauek, joan zen asteko egue-  
nean hasita, astebeteren bar-  
ruan amaitu dituzte. Ortuzar  
auzorako sarbide bietako espa-  
loietan, Antonio Txiki okinde-  
girako sarreran eta udaletxeko  
biltokirakoan egin dituzte arra-  
palak, besteak beste.

**ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR**

San Roke auzoan dagoen errugbi-zelaiko irisgarritasuna bermatzeko asmoz, Elorrioko Udalak hainbat lan egingo ditu bertan. Maiatzean hasi eta denboraldi berria hasi orduko burutu gura dituzte lanak eta, Elorrioko Udalak adierazi duenez, 600.000 euroko aurrekontua dute horretarako.

Gaur egun Elorrioko errugbi-zelaiak ez du ez aldagarik ez komunik, eta arazo horri amaiera ematea ere bada lanen asmoa. "Errugbi taldeek eskolako pabilioiko aldagelak eta komunak erabili behar dituzte", adierazi du Idoia Buruaga alkateak. "Gainera, egungo komunetan irisgarritasuna ez da bermatzen, eta arazo horri bukaera ematea ere bada gure asmoa", gaineratu du.

Maiatzean hasi eta denboraldi berrirako amaituta izatea gura dituzten lanei esker, lau talderentzat eta epailearentzat aldagelak egongo dira San Rokeko zelaian. Horrez gain, komunak eta tabernako barra bat ere hartuko ditu eraikin berriak. "Gaur egun ere barratxo bat jartzen dute errugbi taldekoek, eta horrek ere lekua izango du proiektuan", adierazi du Buruagak.

Bestalde, eraikin berriaren kokalekuari dagokionez, egun harritzko aparkalekua dagoen tokian joango dela esan dute Elorrioko

## Errugbi-zelaian aldagelak eta harmailak jarriko dituzte 600.000 euro inbertituta

Maiatzean hasiko dira San Roke auzoan dagoen errugbi-zelaiko lanak egiten



Errugbi-zelaian harmailak jarriko dituzte.

Udaleko kideek.

Horrez gain, errugbi-zelaiko albo batean, eraikin berriaren ondoan, harmailak jarriko dituztela gaineratu dute. "Estaldura bat izango duen gunek bat izango da,

errugiaz gozateko gunek aproposa", adierazi zuen Dani Palacios kirol zinegotziak azken osoko bilkuran.

### Eskolan lanak

Bestalde, errugbi-zelaiko lanak

amaitutakoan Herri Eskolan ere lanak egiteko asmoa dutela jakinarazi du alkateak. "Etorkezinean eskolako irisgarritasuna hobetzea eta kiroldegian komunak jartzea da gure asmoa", bukatu du.

## Etxegabetzeren bat egonez gero, kaltetuen alde lan egingo du udalak

### ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Elorrioko etxegabetzeren bat egonez gero, kaltetuen alde lan egiteko protokoloa jarriko du martxan udalak. "Elorrioko Udalak bere kezka osoa adierazten du etxe bat izateko zilegizko eskubidea kolokan ikusten duten herritarren egoeraren aurrean. Ondorioz, udalak ahalgin guztiak egingo ditu egoera ekonomiko zehatz baten aurrean, pertsona horien etxebizitza eskubidea bermatzeko", esan dute udal ordezkariak.

Prentsa ohar bidez jakinarazi dutenez, etxegabetze kasurik ezagutzen gero, udalak harreman bidea irekiko luke bankuagaz. Honen helburua prozedura bertan behera uztea eskatzea eta kaltetuak izan ditzakeen proposamenak finantza-erakundeari helaraztea izango da. Horrez gain, etxegabetze kasurik egonez gero, Elorrioko Udalak kreditu erakundeekin duen harreman instituzionala, ekonomikoa eta elkarlana berrikusiko dituela adierazi dute.

## 50 lagun batu dira Garaiko hirigintza plan berria sortzeko lehen batzarrean

Plan orokorraren helburua datozen urteetan herrian egingo diren aldaketak zehaztea da



Jende ugari batu zen urtarrilaren 23an egindako batzarrean.

### GARAI • MARKEL ONAINDIA

Datozen urteetan herrian egingo diren aldaketak diseinatzea da Hiri Antolamendu Plan Orokorraren helburua. Zer bide eraiki, zelako zerbitzuak eskaini, instalazioak berrikusi, etxe berririk behar den ala ez erabaki... Herri guztietan bezala, Garain ere hasi dira hausnarketa hori egiten, azkenekoz arau subsidiarioak onartu zirenetik denbora bat igaro da eta. Plan berria diseinatzeke bidean, joan zen astean aurkezpen batzarra egin zuten

herrian, eta 50 lagunek parte hartu zuten. Planaren oinarriaz informatu zuten arkitektoak eta lana gidatzeko hartu den enpresak.

Luzea izan ohi da HAPO berritzekeo prozesua, eta hasiera honetan planaren zutabeak zehaztea izaten da asmoa. Horretarako, zenbait herritarren artean inkestak egingo dituzte, euren iritziak jasotzeko.

Gerora, batzar zabal gehiago egitea da aukera bat, behin betiko plana garaitar guztien artean adostu ahal izateko.

**Zenbait herritarren artean inkestak egingo dituzte, euren iritziak jasotzeko**

## Eusko Jaurlaritzako Bikain ziurtagiria lortzen saiatuko da Otxandioko Udala

### OTXANDIO • J.D.

Eusko Jaurlaritzak ematen duen Bikain euskararen kalitate ziurtagiria lortzen saiatuko da Otxandioko Udala. Euskararen erabileraren bikaintasun bidean, euskararen presentzia, erabilera eta kudeaketaren gutxieneko maila egiaztatzen du orain 10 urte sortu zuten ziurtagiriak. Otxandioko Udalean kanpora begirako zein udal barruko jardunbideetan euskarak duen presentzia ebaluatu eta aztertuko dute.

**uxarte**  
SAGARDAOGINTZA

Montorra, 6 ZORNOTZA - Tel.: 946 308 815  
www.uxarte.com

ZABALIK OSTIRALETAN ETA ASTEBURUETAN  
ASTEAN ZEHAR ENKARGUZ  
Gutxienez 15 laguneko taldeentzako

**Seguros Bilbao**

**RUEDA BILBAO ASEGURUAK**  
Jabier Rueda

Landako etorbidea, 1 DURANGO  
Tel.: 946 202 710 - Faxa: 946 816 577  
jrueda@segurosbilbao.com

# Hilabete barru gazte alokairurako 6 etxeak eskaintzeko prozesua hasi gura dute Durangon

Udalbatzak aho batez onartu du gazte alokairuko etxeen arautegia; 18 eta 30 urte artekoek eskatu ahalko dute etxea

**DURANGO • MARKEL ONAINDIA**

Osoko bilkurak behin-behinean onartu zuen gazte alokairuko ordenantza martitzenean eta, alegaziorik ezean, hilabete barru berretsiko da. Beraz, dena ondo badoa, Durangoko gazteak hilabete barru hasi ahalko dira Faustegoiengan alokatzeko eskura egongo diren 6 etxeetarako eskariak egiten –udalaren promozio publiko baten baitakoak dira–. Epe hori aurreikusten du udal gobernua.

Proiektuagaz herriko gazteei lagundu gura diete, gurasoen etxetik irteteko duten zailtasunari aurre egiteko.

**115 eta 300 euro artean**

18 eta 30 urte artekoek edukiko dute etxea eskatzeko eskubidea; urtean 7.500 eta 33.000 euro arteko diru sarreren jabe izatea da beste baldintza bat. Eta, diru sarreren arabera ezarriko dute errenta, 115 eta 300 euro artean egongo dena. Etxeetako egonaldia txandakakoa izango da, epemuga batez. Gutxienez, urtebeteko kontratua



San Fausto auzoko babeseko etxeetan egongo dira alokairuko 6 etxeak. Urte amaitu aurretik beste 5 zabalduko dituzte.

izango da, eta hiru urtera arte luza-garria, urterik urte.

**Alderdiak, ados**

Udalbatzak aho batez onartu zuen gazte alokairua arautuko duen ordenantza. Aitziber Irigoras alkateak (EAJ) alderdien lana eskertu

**Urtean 7.500 eta 33.000 euro arteko diru sarreren jabe izatea da beste baldintza bat**

zuen osoko bilkuran. “Pozarren hartzen dugu akordioetara heltzeko grina”. EAJk, EH Bilduk, eta Herriaren Eskubideak lez, Pilar Rios alkateordeak (PSE-EE) gazteen kolektiboek batzarretan eta Durango Eraikitzen zerbitzuan egindako ekarpenak eskertu zituen. Gainera,

ekimena etxebizitza politika orokor baten baitan kokatu zuen. Jon Bingen Landabidearen (EH Bildu) ustez, aurrerapauso bat da martitzenekoa. “Kontziente gara 11 etxek ez dutela arazoa konponduko, baina abiapuntu lez ikusten dugu”. Berak eta Julian Riosek (HE) alokairuko etxebizitza parkea handitzeko beharra nabarmendu zuten. Fran Garateren (PP) ustez, gazteen emantzipaziorako lagungarria izango da.

**Gutxienez, urtebeteko kontratua izango da, eta hiru urtera arte luza-garria, urterik urte**

**Gazteak, pozik**

Zabalduko Ditugu gazte dinamika indarra egiten ibili da alokairuko etxeen eskaeran azken urteetan. Ekimenagaz arazoa osotasunean konponduko ez dela uste arren, pozik hartu dute albistea, “herrian beharrezkoa” delako. Baina, proiektua aurrera atera bada, “mugimenduak eta oposizioko alderdiek egindako lanari esker” izan dela diote, eta udal gobernuko arduradunekin “elkarlana gauzatzeko zailtasunak” eduki dituztela azaleratu dute.

## Podemos-Ahal Dugu alderdiak egoitza zabaldu du Goienkalean

Herritar ugariren babesagaz zabaldu zuten Durangoko egoitza joan zen barikuan



Dantzariagaz inauguratu zuten Goienkaleko egoitza.

**DURANGO • MARKEL ONAINDIA**

Podemos-Ahal Dugu alderdiak egoitza ofiziala edukiko du aurrerantzean Durangaldean, Durangoko Goienkalean hain justu ere. 2014an sortu zen alderdiaren eskualdeko zirkulua, eta, geroztik, sendotzen joan den mugimendua da.

Joan zen barikuan egin zuten inaugurazio ekitaldia, eta herritar ugari batu ziren babesagaz.

Alderdiaren erkidegoko arduradun Lander Martinez ere bertaratu zen. Ekitaldian, Julian Riosek (Durangon Herriaren Eskubideko zinego-

**Eskerrak eman zizkien bertaratutakoei eta zirkulua sortu zenetik lanean ibili diren guztiei ere**

tzi ere bada) pozez hunkituta egin zuen berba, negarrari ezin etsirik. Eskerrak eman zizkien bertaratutakoei eta baita Durangaldeko zirkulua sortu zenetik lanean ibili diren guztiei ere. Antonio Machado poetaren esaldi batez amaitu zuen hitzartzea: “Egin ezazue politika. Bestela, beste batzuek egingo dute zuen partez, eta, seguruenik, zuen aurka”.

**Estazio zaharra botata, sarbide nagusia eraikitzea da hurrengo pausoa**

**DURANGO • M.O.**

Joan zen astean amaitu zuten estazio zaharra eraisten eta, orain, geltoki berrirako sarbide nagusia eraikitzea izango da Durango Operazioaren hurrengo pausoa. Udalak azaldu du 2006ko plan berezian jasotzen zela estazio zaharra botatzea, eta hori beharrezkoa zela sarbide nagusia eraikitzeko. Gainera, instituzioaren arabera, estazio-ko eraikinak ez zeukan babes izaerarik; bai, ostera, transformazio elektriko eraikinak, eta bere horretan eutsiko diote. Martitzeneko osoko bilkuran, EH Bilduk eta Herriaren Eskubideak desadostasuna erakutsi zuten estazioa botatzeaz.

Gaur egun sarbide garrantzitsuena dena larrialdietarako irteera lez diseinatu zuten hasieran, eta erabiltzaileen hainbat kexa izan ditu, aterperik bakoa delako eta eskailera irristakorrek dituelako. Horren ondorioz, sarbide hori ere estali egingo dutela eta eskailera hobetuko dituztela azaldu du udalak prentsa oharrean.

**Frankismoko biktimen 200 bideo gehiago sareratu ditu Durango 1936k**

**DURANGO • M.O.**

Frankismoaren biktimen inguruko 200 bideo gehiago ipini ditu ikusgai Durango 1936 elkar-tekak bere webgunean. Urtero hamar elkarrizketa editatu eta horien bideoak sarera igotzeko konpromisoa hartuta du memoria historikoa lantzen duen elkarteak. 2017ko hamar grabazioak 200 zatitan banatu dituzte, gaika, ikusterrazago izateko. Guztira, 1.099 bideo daude ikusgai, [www.durango1936.org](http://www.durango1936.org) webgunean. Lana egin ahal izateko udalak emandako laguntza eskertu dute.

Euren esperientzia edo senideena kontatzen duten protagonistak hauexek dira: Maria Esperanza Igarza Zubiate elorriarra; Florencio Ugalde Agirre zornotzarra; Feliciano Markoinda Olaetxea eta Iñigo Mendibil Arando atxondarrak; Kristina Mardaras Sedrun iurretarra; eta Maria Ines Etxebarria Urriaga, Gregorio Milicua Isundegi, Iñaki Gorritxategi Alberdi, Jabier Urkijo Juaristi eta Jesus Agirre Zabala berriztarrak.

# Ikastaroen erdiak euskaraz eskaintzea “pausoz pauso” gauzatzeko prozesua dela dio euskara arloko zinegotziak

Udalak ez du oraindik bermatzen euskararen inguruko Planean jasotzen den eskubidea



2018ari ekiteko prestatu dituzten aldizkako 14 ikastaroetatik erdiak euskaraz izango dira.

**ZORNOTZA • JOSEBA DERTEANO**

Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plan berria indarrean dago iazko otsailaz geroztik. 2017tik 2021erako epealdia du. Plan horretan, udalak herriari aitortzen diz-

kion eskubideen atalean, berri bat gehitu zuten iaz: udalak eta bere erakunde autonomoek antolatzen, kudeatzen eta sustatzen dituzten ikastaroen %50, gutxienez, euska-

raz jasotzeko eskubidea, hain zuzen. Eta, Behatokiak egindako azterketa baten arabera, iaz ez zuten eskubide hori bermatu. “Dena ezin daiteke aldi berean aldatu. Pausoz

pauso egin beharreko prozesua da”, adierazi du Luciano Martinez Euskara, Kirol eta Kultura zinegotziak. “Abenduan egindako kultura batzordean denok ulertu genuen egoera nolakoa den”, gehitu du.

Urte osorako nagusien ikastaroetan dago harresi nagusia. 250 bat lagunek parte hartzen dute, eta teknikariek euren profila aztertu dute. Ondorioetako bat da “gehienek gaztelaniaz” hitz egiten dutela, adierazi du Martinezek.

Beraz, Planean agindutakora hurreratzeko lehen pausoa aldizkako ikastaroekin emango dute; 2018an hasiko diren epe laburragoko ikastaroekin. 14 ikastaro prestatu dituzte eta erdiak, zazpi, euskaraz izango dira. “Dena dela, badakigu horregaz bakarrik ez dela portzentzia berdinduko, eta ikastaroetan euskararen presentzia handitzen jarraitu behar dugu”, onartu du.

Gakoetako bat gazteak erakaritzea dela uste du. “Gazteek badakite euskaraz, eta aztertu egin behar du zuei begirako zer ikastaro antolatu daitekeen”, esan du.

Beste neurri bat irakasleak elbidunak izatea izan daiteke, esaterako, spinning ikastaroetan. “Ikastaroak gaztelaniaz izanda ere, hasierako azalpenak euskaraz eman ditzake, eta ikasle konkretu bati zuzendu behar bazaio, euskaraz izan dadila”, azaldu du Martinezek.

## Banco Sabadellen 209.201 euro zituen udalak eta Fiare banku etikora eraman ditu

**MAÑARIA • JOSEBA DERTEANO**

Mañariko Udalak Banco Sabadellen zituen 209.201 euroak Fiare banku etikora eramatea erabaki du. Ebatzi horren bidez, “gizartea eraikitze bidean —gizartean balio justu, solidario eta humanoak sakontzeko bidean— gure harritxo jarri gura izan dugu”, adierazi dute udal ordezkariak ohar batean.

Etekin irizpideen arabera bakarrik funtzionatzen duten ereditutik irten eta beste adierazpide baten aldeko apustua egin dute. “Fiare banku etiko, herritar eta kooperatiboaren aldeko proiektua da. Helburu nagusia da pertsona zein antolakunde aurrezkiak ekonomia sozial eta solidarioko proiektuen zerbitzura bideratzea”, diote.

## Hainbat sare sozialen oinarriak irakatsiko dituzte otsaileko ikastaroetan

**MALLABIA • J.D.**

Gaur egungo sare sozial erabilienetakoak Facebook eta Instagram dira. Ibiliak ez diren zat, sare sozial horietako oinarriak azalduko dituzte otsaileko ikastaro bitan. Facebook-en ingurukoa otsailaren 20tik 23ra izango da, 16:00etatik 18:00etara. Instagrami buruzkoa, berriro, otsailaren 26an eta 27an, 18:00etatik 20:00etara. Batean zein bestean parte hartzeko izen-ematea kultur etxean egin daiteke otsailaren 15era arte.

## Askotariko adikzioen prebentzioan lan egiteko plana aho batez onartu dute

**ZORNOTZA • J.D.**

Adikzioen Prebentziorako Plana aho batez onartu dute azken udalbatzarrean. Orain arte ere hainbat ekintza egin izan dituzte ikastetxeetan, baina arlo horretako plan bat onartzen duten lehenengo aldia da. Alkoholen eta drogen esparrua landu dute batez ere orain arte, baina, aurrerantzean, bestelako adikzio batzuetan ere ahalegin berezia egingo dute. Esate baterako, gazteek mugikorretarako eta jokoetarako duten joerari erreparatuko diote.

Azterketa bat egin dute Plana egituratzeko, eta askotariko eragileekin batu dira (osasun arlokoak, irakasleak, udaltzaingoa...).

Hiru bidetatik jorratuko dute gaia; ikastetxeekin, familiekin eta gizarteko eragileekin. Ikastetxeekin, esaterako, autestimua eta antzerako gaiak gazteagotan lantzen hasteko asmoa dute, Itxaso Iriondo zinegotziak azaldu duenez. Lanketa “transbertsala” izan behar dela azpimarratu du.

## Ahed Tamimiren aitak esker oneko mezua zuzendu dio udalbatzarrari

Udal adierazpena adostu dute Tamimi palestinarra askatu dezaten eskatzeko



Udalbatzarreko alderdi denetako (EAJ, EH Bildu, Hiri Ekimena eta PSE) zinegotziak jatorri palestinarreko gazteekin.

**ZORNOTZA • JOSEBA DERTEANO**

Ahed Tamimi palestinar aktibista gaztea askatzea eskatzen duen udal adierazpen bat adostu dute Zornotzako Udaleko alderdi denek, eta joan den barikuko udalbatzarrean irakurri zuten. Israelgo armadak iazko abenduan atxilotu zuen Tamimi, protesta ekitaldi batean Israelgo soldadu bati zaplazteko bat eman eta hurrengo egunean. Bere ama ere atxilotu zuten.

Alba Gutierrez Hiri Ekimeneko zinegotziak Aheden aita Bassem al-Tamimik helarazi dien gutun bat irakurri zuen. Gutierrezek Palestinan ezagutu zituen aita-alabak eta, azkenekoz, atxiloketa baino hilabete lehenago ikusi zituen. Bassem esker oneko ageri da gutunean. “Nire familiaren eta nire izenean, gure kausarekiko erakutsi diguzuen babesa eskertu gura nuke. Emaztearen eta alabaren hu-

tsunea ikaragarri igartzen da gure etxean, baina harro sentitzen naiz euren printzipioen alde borroka egiten duten emakume ausart bi direla pentsatuta”, idatzi du.

Joan zen barikuan, jatorri palestinarreko hainbat gazte batu zen Tamimiren inguruko udal adierazpena irakurri zuten udalbatzarrean, eta, amaieran, familia argazki bat atera zuten gazteek zinegotzi guztiekin.

## Santa Ageda abestera irtengo dira, Caritasentzat dirua batzeko asmoz

**ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR**

Apatako San Pedro Apostoluaren parrokiak antolatuta, herritar talde bat Santa Ageda koplak abestera irtengo da domeka honetan, 14:30ean. Batutako dirua beharrezanean daudenei laguntzen dien elkarte edo erakunderen bati ematen diote urtero. Aurten Caritasentzat izango da batzen duten gutzia.

Bestalde, antolatzaileek gonbit egin diete herritarrei abenduaren 4an Santa Ageda koplak abestera joateko.



# Ekainaren 10ean eskualdeko zazpi herritatik igaroko da Gure Esku Dagok erabakitze eskubidearen alde antolatutako giza katea

Mallabi (Areitio gaina), Zaldibar, Berriz, Abadiño, Durango, Iurreta eta Zornotzatik zehar joango da Gasteizko Legebiltzar parean amaituko den giza katea

**DURANGALDEA • JOSEBA DERTEANO**

Erabakitze eskubidearen aldeko Gure Esku Dago mugimenduak giza kate bat egingo du ekainaren 10ean. Donostian hasi eta Gasteizko Legebiltzarraren aurrean amaituko da, 201 kilometro eskurik esku lotuta.

Bidean Durangaldeko hainbat herri zeharkatuko ditu: Mallabia (Areitio gainetik), Zaldibar, Berriz, Abadiño, Iurreta, Durango eta Zornotza. Mallabia, Zaldibar eta Berriz N-634 errepide nazionaletik zeharkatuko ditu. Traña-Matienco biribilgunetik barrura sartuko da; Eroski inguruko biribilgunetik aurrerantz Durangora sartuko da. Landako Etorbidetik Iurretarrantz joango da, eta han berriro errepidera irtengo da Zornotzara bidean.

Eskualdeko herri denek —eta inguruko beste batzuek— kilometro horiek eskurik esku lotzeko ardua izango dute. Katea osatzeko, ehun bat mila lagun beharko direla kalkulatu dute. Euskal Herrian inoiz egin den “mobilizaziorik handie-



Angel Oiarbide eta Zelai Nikolas Gure Esku Dagoren bozeramaileak Eureka zientzia museoaan.

na” izango dela azpimarratu zuen Gure Esku Dagoren bozeramaile Angel Oiarbidek joan zen zapatuan, ekimena aurkezteko Donostiako Eureka zientzia museoa egindako ekitaldian. “Bost urtean egin, ikasi eta lortu dugun guztiaren emaitza

izango da ekainaren 10a, eta herritarren erabakitze arrazoiak erakundeetara bideratuko ditugu”, gehitu zuen Oiarbidek.

2019an erabakitze eskubidearen aldeko “ekaitz perfektua” sortzeko aukerak ikusten ditu Oiar-



2014an Durango eta Iruñea lotu zituen giza kateko irudia, Abadiñon.

bidek. “Hainbat esparrutan, gizartean, erakundeetan zein nazioartean egiten ari diren urrats guztiek bat egin dezakete. Testuinguru horretan eraginez, herritarrok gure esku dagoen guztia egingo dugu, guri dagozkigun pausoak irmoki

eta elkarregaz emanez, erabakira iristeko”, azaldu zuen.

2014ko giza katearen ereduari jarraituko diote. Zapiak eskuratu beharko dira giza kateko metroa lortzeko. Kamiseta berriak ere atara dituzte ekimenerako.

## Gaztedi Planean gazte bi bakarrik apuntatu direla atera du argitara EH Bilduk

**DURANGALDEA • M.O.**

Iaz arte Amankomunazgoak gestionatzen zuen Bizkaiko Foru Aldundiaren Gaztedi Plana, gazteen laneratzea bultzatu gura duena. 2017tik 2020rako planean, ostera, beste kudeatzaile batzuk aukeratu zituen Aldundiak: Durango, Zornotza eta Ermuako udalak. Durangori dagokio programaren koordinazioa garatzea. 25 gazte lan munduan sartu ahal izateko laguntzak eskaini zituzten, eta EH Bilduk argitaratu du bik bakarrik eskatu dutela. Horrek “plana ez dela egokia izan” erakusten du alderdiaren ustez. Lanen ordutegi eta zereginak ez zehaztea, tutorerik ez izendatzea eta sindikatuen partaidetzarik ez egotea kritikatu du. EH Bilduren zuzenketa bi onartu zituzten: gutxieneko soldata ezartzea eta ikuskaritza egotea.

EH Bilduren iritziz, hobe litzateke plana Amankomunazgoak kudeatzea, bertan teknikariak daudelako eta udal gehienek eskumena emanda diotelako.

## Amankomunazgoak Txertatu Merkatuan programa jarriko du martxan martxoan

**DURANGALDEA • M.O.**

Amankomunazgoak, Behar-gintzaren bidez, Txertatu Merkatuan programaren hirugarren edizioa jarriko du martxan, gazteen laneratzea sustatzeko. Otsailaren 23ra arte eman ahal da izena, bertako bulegoan.

Gazteek garatzen dituzten eguneroko jardueretan lan-kompetentziak identifikatzea, motibazioa lortzea eta autoestimua

**Materialak berrerabiliz, askotariko objektuak zelan egin ahal diren ikasiko dute**

areagotzea dira programaren lehen zatiko helburuak. Gero, bigarren fasean, materialak berrerabiliz, askotariko objektuak zelan egin ahal diren ikasiko dute. Aurreko edizioetan, adibidez, mahaiak, arropa eskegitzekoak eta lanparak egin izan dituzte; iaz, JAED elkarteari eman zizkieten dohaintzan.

## Mujika: “Pozik gaude Gerediagan egindako lana aintzat hartu delako”

Sabino Arana saria jasotzea etorkizunera begira Gerediagak dituen erronkei aurre egiteko “bitamina handia” dela esan zuen Nerea Mujika presidenteak

**DURANGALDEA • JOSEBA DERTEANO**

Gerediaga elkarteari Sabino Arana saria eman zioten joan zen asteburuan, eta elkarteko zenbait kide joan ziren Arriaga antzokian egindako ekitaldira. Nerea Mujika presidenteak jaso zuen oroigarria. “Pozik nago eta pozik gaude Gerediaga Elkartearen. Pozik elkartearen

egindako lana aintzat hartu eta gaur Sabino Arana saria jaso dugulako. Beraz, eskerririk asko Sabino Arana fundaziookooi horrelako aitortza egiten diguzuelako. Eta zorionak beste sarituoi ere”, adierazi du Mujikak saria hartu ostean.

Gerediagak “Durangoko Azoka baino gehiago” dela erakutsi

duela nabarmendu zuen, eta saria jasotzea etorkizunera begira elkarrekin dituen erronkei aurre egiteko “bitamina handia” dela esan zuen presidenteak.

Eskualdeko elkarteak Durangaldeari eta Euskal Herriari egindako ekarpena baloratu zuen Sabino Arana fundazioak. “Durangaldeko ondare historiko, artistiko eta tradizionala ikertu, zaindu eta zabalteko lan eskerga egin du Gerediagak”, aitortu zuen fundazioak.



Mujika, erdian, beste sarituekin eta fundaziooko ordezkariekin. Iñigo Urkullu lehendakaria ere egon zen sari banaketan. Gerediaga elkartearen

## “Bizia arriskuan jartzen dugu eta oinezko askok beldurrez egiten dugu bide hori”

Fauste auzotik Arriandi industrialderaino, N-634 errepidearen albotik, bidegorri bat egokitzea eskatu diote bizilagunek lurretako Udalari, “oinezkoen segurtasuna bermatzeko”



Fauste auzoko oinezkoek N-634 errepidearen bazterbide estua erabiltzen dute.

**IURRETA • AITZIBER BASAURI**

Fauste auzotik Arriandi industrialdean dagoen autobus geltokira joateko, oinezkoek N-634 errepide nagusiaren bazterbidea erabili behar dute ezinbestean. Bazterbide estua da hori, eta trafikoa “etengabea” da errepidean. Auto eta kamioi ugari pasatzen dira bertatik, “abiadura handian”, Fauste auzoko hainbat bizilagunek nabarmendu dutenez. “Egoera arriskutsu” hori salatu dute lurretako Udalean, eta segurtasuna bermatzeko neurriak hartzea eskatu dute. Errepidearen albotik joango den bidegorri bat egokitzea eskatu dute idatziz. Urtarrilean bertan egin dute eskaria.

Fausteko bizilagunek azaldu dutenez, “egun askotan egin behar dugu ibilbide hori oinez, geure bu-

rua arriskuan jarrita. Oso estuak dira bazterbideak, eta ibilgailuak oso gertu pasatzen dira”, azaldu dute Angelita Erdoizak eta Mari Tere Rementeriak. Gogoratu dute istripuak egon direla eta hildakoak ere egon direla. “Bizia arriskuan jartzen dugu eta oinezko askok beldurrez egiten dugu bide hori”, gaineratu dute. Bidegorriaz gain, autobus geltokia dagoen parean semaforodun zebra-bide bat jartzea ere eskatu dute Fausteko bizilagunek. Arriandiko industrialdean hainbat langile daudela ere gogoratu dute, “eta askok arrisku bera bizi dute errepide nagusia gurutzatu behar dutenean autobusa hartzeko”.

**Bizkaiko Aldundiari eskaria**

Fauste auzoko bizilagunen eskariei erantzun guran, Bizkaiko Foru Aldundiko Garraio eta Mugikortasun Sailera jo du lurretako Udalak, “oinezkoen segurtasuna bermatzeko gutxienez metro biko zabalera izango duen bazterbidea” egokitzea eskatzeko. Fauste auzotik Arriandi industrialdean dagoen autobus gel-

tokiraino eskatu dute bazterbidea. Era berean, N-634 errepidea “segurtasunez gurutzatzeko”, semaforodun zebra-bidea ere eskatu dute Foru Aldundian.

N-634 errepide nagusia Foru Aldundiaren eskumena dela gogoratu du Iñaki Totorikaguena alkateak. “Udalak ezer gutxi egin dezake Aldundiaren baimenagaz edo haregaz elkarlanean ez bada”, esan du.

**Mallabienatik Faustera**

Lurretako alkateak esan duenez, lanean dabilta egoera horri erantzuteko. Hala ere, Faustetik Arriandiko industrialderainoko tarte horrek ez ezik, Mallabienatik Faustera-noko tartea ere “kezkatzen” du udala. “Aspaldiko ardua dugu nola uztartu Fausteko bizilagunen eta industrialdeetara lanera doazenen beharrak batetik, eta trafiko premiak bestetik”. Arriandiko autobus geltokiak egokitu zituen lurretako Udalak duela urte batzuk, alkateak gogoratu duen moduan. Halaber, lur azpitik oinezkoentzako pasabidea ere egin zuten.

## Ika-mika sortu da osoko batzarrean, Eneko Etxebarriaren kargugabetze eskaera dela-eta

Udal gobernuak atzera bota du EH Bilduren mozioa, eta babesa erakutsi dio zinegotziari; tirabira, bestalde, San Blas eta Abadiño koalizio abertzalekoak ez dira joango.



Zinegotziak eta alkatea udaleko osoko bilkura batean.

**ABADIÑO • ARITZ MALDONADO**

Prentsan sorturiko zalaparta udaleko osoko bilkurara igaro zen joan den martitzenean. EH Bilduk kultura eta kirol arloko arduraduna den Eneko Etxebarriari kargua eta liberazioa kentzeko eskatu zuen bertan. Mikel Urrutia zinegotziaren berbetan, Etxebarria buru den arloetan hutsuneak eta gabeziak nabarmenak dira. “Kontseiluak hiltzen utzi dira, herritarrok ezin dugu eskalada-horma erabili urte

eta erdi inguru eginda daraman arren, herriko umeetako askok ez dute herrian futbolera jokatzeko aukerarik... adibide batzuk baino ez dira horiek”, esan zuen.

Udal taldeak, ostera, atzera bota zuen mozioa, eta babes osoa agertu zion zinegotziari. Jose Luis Navarro alkateak zein Eneko Etxebarria zinegotziak berak hartu zuten berba. “EH Bildutik beti zabilzate demagogia egiten, beti gainontzekoon lana kritikatzeko, eta ezer proposatu

barik, gainera”, esan zuen alkateak. Etxebarriak, berriz, “ebaluaketa” legegintzaldi amaieran egin behar dela uste duela adierazi zuen. “Kargua hartu aurretik hainbat gabezia zeuden. Adibidez, ez zegoen eskalada-hormarik. Ikusiko dugu legegintzaldia amaitzen denean horietako zenbat gabezia beteta dauden, eta hor ikusiko da ondo egin dudana nire lana”, esan zuen. Urrutiaren berbetan, ostera, ebaluaketak “jarraia” izan behar du eta herritarrek ezin

diere zerbitzuei legegintzaldiaren amaierara arte itxaron.

**Dinamika berri eske**

Kargugabetze eskaera ez zen izan tirabira eragin zuen bakarra. Gai eta eskarien tartean, EH Bilduk adierazi zuen aurten ere ez direla joango udalak San Blas jaien harira antolatzen duen bazkarira. “Harremanak sendotzeko dinamika hauek zaharkiturik daude”, adierazi zuten. IATF 6949 arautegiko jarraibideei jarraitzeko proposatu zuen, gainera. Hasiera batean administraziorako ez den arautegia den arren, baliagarria izan daitekeelakoan proposatu zuen.

Navarrok, ostera, ez zuen hainzat hartu proposamena. “Akdiorik onenak mahaiaren bueltan lortzen dira; kentzea gustatuko litzaigukeen gastu bat da, baina herritarren lana aitortzen duen ekitaldi bat ere bada”, argudiatu zuen alkateak.

Tirabirak prentsaren bidez jarraitu du. Alkateak prentsa ohar bat kaleratu zuen eguaztenean, EH Bilduren jarrera “demagogoa” salatuz. “San Blas ferian udalak egiten duen opari bakarra urte horretan jaunartzea egiten duten umeei egindakoa da”. Koalizioak, beste ohar batez erantzun zuen. “2.500 euro horiek behar garrantzitsuagoetarako erabili beharko lirake”.

## 16 urteko kartzela zigorra adin txikiko biri eta haien amari sexu abusuak egiteagatik

**ABADIÑO • M.O**

Martitzenean atera zen sententzia, Bizkaia Lurralde Auzitegian. 2014an atxilotu zuten gizona, eta behin-behinean aske utzi zuten; Auzitegi Gorenean errekurritu ahalko du zigortuak. Guztira, 16 urtekoa da epaileak ezarritako espetxe zigorra. Abadiñon kezka handia eragin zuen gertakariak 2014an. Hainbat herritarrek protesta egin zuten plazan, sexu erasoak amaitzea eskatzeko.

## Hilerrri ondoan dagoen bizikletak garbitzeko gunea, berriro ere zabalik

**ABADIÑO • MAIALEN ZUAZUBISKAR**

Bizikletak garbitzeko gunea berriro ere zabaldu dute Abadiñon. Udalak prentsa ohar bidez jakitera eman duenez, hilerrri ondoan dagoen gunearen erabilera ona bermatzeko asmoz, erabiltzaileei giltza bana emango diete. Gunea erabili gura dutenek eskaria egin beharko dute, udaletxean eskari orria beteta, [irekalde@abadiño.org](mailto:irekalde@abadiño.org) helbidera idatzita edo 688 867 137 telefono zenbakira mezu bat bidalita.



## Harek denporak!

# ABADIÑOKO BANDERA ZAHARRA, NON OTE DAGO?

Inork ez daki non dagoen Abadiñoeko bandera zaharra, jatorrizkoa. 1978an ostu egin zuten. Gaur egun San Trokaz jaietan herriko dantzariak darabilten bandera orduko haren kopia bat da, benetakoa baino apur bat txikiagoa. Aurten 40 urte egin dira desagertu zenetik.

Jatorrizko bandera 1896an egin zuten, eta hurrengo 82 urteetan, besteak beste, Abadiñoeko dantzariak erabili zuten

euren saioetan. Bandera probalekuan egoten zen, entseguetarako erabiltzen zutelako. Behin, sanblasak zirela-eta, probaleku osteko gelara eramane zuten bandera, eta handik desagertu zen.

Atal honetako argazkia 70eko hamarkada hasieran ateratakoa da. Antzerako argazkiak eredu moduan hartuta, bandera berria egin zuten moja batzuen laguntzagaz. J.D.

## Sei hankako mahaia

Pilar  
Rios Ramos  
PSE - EE



### ETXEBIZITZARAKO ESKUBIDEA

Euskal Gazteriaren Behatokiak egin duen azken txostenaren arabera, gazte askok ez dute etxebizitzarik jabetzan, eta askok denbora luzea behar dute independizatu ahal izateko, nahiko luketena baino sei urte gehiago. Neska gazteentzat are zailagoa da kontua, soldatan dagoen arrakala dela eta, mutilek baino 250 euro gutxiago kobratzen baitute. Babestutako alokairua da kolektibo honek duen aukera bidegarri bakarra.

Kolektibo honi dagokionez, gaur egun, zuzkidurako 6 apartamentu ditugu, gazteek independizatzeko aukera izan dezaten; eta 2018an 5 gehiago egongo dira. Apartamentuak prestatuta daude. Ordenantza arautzailea onartu egin da, eta hilaletako epean jendaurrean jarri ondoren, zerrendak zabalduko dira izena emateko. Gainera, laguntzak ematen ditugu gazteentzako etxebizitzak alokatzeko. Urtero, 65.000 euro banatu ohi dira, 80-90 eskatzailearen artean.

Gure ustez, horixe da egin beharreko bidea, eta, beraz, lanean jarraituko dugu eskuratzeko moduko etxebizitzak eskaini ahal izateko.

Bestalde, Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza Saila ere ildo horretan ari da lanean, eta gu lankide gara haien programetan. Aurten, aurreikuspenen arabera, gastu gehiena Etxebizitzari buruzko Legea arauz garatzeko eta etxebizitzarako eskubide subjektiboa bermatzeko erabiliko da.

Etxebizitzarako eskubide subjektiboa Euskadiko Alderdi Sozialistak sustatu du, eta eskubidea aitortzen die herritarrei, administrazio publikoei etxebizitza baterako sarbidea eskatzeko, ahal dela alokairuan. Eskubide hori bermatzeko, aurten, Eusko Jaurlaritzak alokairuko etxebizitzak adjudikatuko ditu, hutsik dauden etxebizitzak hartu ondoren. Gainera, zuzeneko laguntzak eskainiko ditu, alokairua ordaintzeko, hemen, Durangon, egiten dugun bezala.

## Durangaldea asteen

### Udalekutan lan egiteko hezitzaileak behar ditu Berbaro elkarteak

**Durango I** Hainbat udaleku antolatu behar ditu Berbaro euskara elkarteak, eta, horregatik, hezitzaileen lan-poltsa zabaldu du. Interesdunek [berbaro.eus](http://berbaro.eus) webguneko galdetegi bat bete, eta [aisialdia@berbaro.eus](mailto:aisialdia@berbaro.eus) helbidera curriculuma bidali behar dute. "Hainbat udalekutan parte hartzeko aukera izango duzu eta beste hainbat herri eta gazte ezagutzeko aukera ere bai, kanpaldien, ibiltarien eta udan olgetanen bidez", zuzendu zaizkie gazteei.

### 16.000 bisitari jasota, Berdeago azoka sendotu egin dela nabarmendu dute

**Durango I** Berdeago Energyn 7.600 lagunek egin zuten bisita, eta Berdeago Naturen, 8.500ek. Antolatzaileek balorazio ona egin dute, bisita kopuruagatik zein erakusle eta herritarren artean egondako interakzioagatik. "Berdeago jada saihestu ezinezko elkargunea da energia berriztagarrietan eta elikadura ekologikotant interesaturik daudenentzat", azaldu dute.

### Bakearen aldeko 400 globo zerura jaurti dituzte Zornotzako ikasle eta nagusiek

**Zornotza I** Indarkeriaren Kontrako eta Bakearen Aldeko Eskola Eguna izan zen martitzenean, eta El Carmelo ikastetxeko 400 gaztek eta Jose Maria Azkuna egoitzako adinekoek bakearen aldeko globoak askatu zituzten Zelaieta parkean. 1948ko urtarrilaren 30ean Mahatma Gandhi hil zuten, eta 1964az geroztik egun hori Bakearen Aldeko Eskola Eguna moduan izendatuta dago. El Carmelo ikastetxekoak orain hiru urte hasi ziren ekimen honegaz.

## Iritzia

### NESKA-MUTILAK EZPATAJANTZARI

Joan den asteko Anbotok ekarren artikuluan, argazki eta guzti. Ijorretako Mikel Deuna dantza taldeko neska-mutilak ikusten nebazan euren zenbait arduradunekin, pozik eta irripartsu. Bakixan, por fin, neska eta mutilez osoturiko taldeak ezpatajantzako hainbat jantza alkarrekin egitea zan motiboa. Zorionak danori.

Asko gustatu jataz Olatz Plazaolan deklarazioak ere: guztiei dantza bardinak erakutsi jakez eta gero taldean erabaki dabe nork eta zer dantzatu. Poztekoa da Olatz, praktika demokratikoaren falta somatzen nuen eta zuek gazteok berreskuratu dozue. Beti euki dot gazteengan itxaropena eta oraingoan ere zuen eskutik dator aldaketaren bidea. Ausartak zarete!

Badakit, eta onartu beharra dago, ez zaretela lehenak izan andrak ezpatajantzara sartzen. Ez daukat ahazteko garaitarrek egindako ahalegina, gerora porrotean geratu zena. Durangoko Kriskitinekoak ikusiak genituen Izurtzan eta geroago Ijorretako plazan dantza egiten. Azkenengo Amatzako San Martiñetan ere sorpresa ikusgarria emon eustien auzo bertako neska-mutil eta andra-gizonek, ezpatajantzako talde bi osotu eta jantzan ikusi nebazanean. Nabardurekin, baina ezpatajantzan. Zorionak, Antonmari, egindako lan onagaitik.

Uste dot oso garrantzitsua dala Ijorretako Mikel Deunak pauso hau emotea. Bardintasunerako aukera bat zabaldu jako andrazkoari gizartean parte hartzeko. Hau ospatzeko da. Ea datorren Urrijetan "topa" egiten dogun. Mila esker dagokionari.

Kristina Mardaras Sedrun.

**Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:**  
Bixente Kapanaga 9 - IURRETA · Izen-abizenak · telefonoa · helbidea · Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOn irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarateak barne).

**Pipirikez** | Zorrien eta bartzen deuseztapen zentro espezializatua

Teknologia berriztatzailea, oso eraginkorra, %100 naturala, produktu toxiko barik.

AURRETIKO ZITA: [www.pipirikez.es](http://www.pipirikez.es)  
info@pipirikez.es - Tel.: 688 632 933  
Aguirre Lehendakari 4, DURANGO

35'95€-tik AURRERA

Tratamendu eraginkorra zorri eta bartzak 60 minutuan kenduta

CERAMICAS  
**MACOBER**

MATERIAL DE CONSTRUCCION  
**MACOBER**

Chimeneas  
Cerámicas MACOBER

**ERAIKUNTZAKO MATERIALA ZERAMIKA ETA GRESA**

Eitua industr., 66 BERRIZ - Tel.: 946 827 890  
Tronperri kalea, 1 DURANGO - Tel.: 946 811 727

**BODEGUILLA**

TRANA-MATIENA  
Tel.: 94 681 43 85



## Sanblasak

JAIK

Abadiño :: Otsailak 2, 3 eta 4

## Neskazaharrak bentanetan...

Abadiño San Blasetan, neskazaharrak bentanetan mutilzaharrak en-gainetan dio abesti ezagunak. Ez dakigu neskazaharrak bihar ere leihotan egongo ote diren, baina kalean seguru ehunka andre-gizon elkartuko direla, baserrieta-

tik datozen abere eta ortuariak ikusteko. Aspaldiko azoka da sanblasetakoa, eta sasoiak asko aldatu diren arren, bihar ere jai handia ospatuko dute Abadiñon.

150 postu inguru egongo dira Zelaietan. Ekitaldiei dagokienez,



## ‘Esto no me lo esperaba’, Arriola antzokian

**ANTZERKIA** | Hurrengo bari-kuan, otsailak 9, Zanguango taldearen *Esto no me lo esperaba* antzezlan dator Elorrioko Arriolara, 20:30ean.

Antzezlan honegaz, aktore figuranteen paperaz hausnar-

tu gura dute egileek. Mexikoko Iraultzaren liderra zen Emiliano Zapataren bizitzari eta heriotzari buruzko antzerki ekoizpen erraldoi bateko protagonistak aspalditik desagertu dira eta, horregatik, figuranteek bira egiten jarrai-

tzea erabaki dute, mega-fikzio hau irudikatzeko eta sinesgarri egiteko moduak bilatzen. Euren asmoa ez da protagonistak ordezkatzea, figuranteen paper sinplekin istorio osoa taulartzeko gai direla uste dute eta. Helburu horrek, baina, gatazkak sortuko ditu protagonisten artean.

1993an sortutako antzerki taldea da Zanguango, eta makina bat obra taularatu dituzte.

### Otsailaren 2an

**ZALDIBAR tailerra**  
**Sormen tailerra,**  
17:30ean, Udal  
Liburutegian.

**ABADIÑO San Blas jaiak**  
**Pilota txapelketa,**  
19:00etan, Tornosolo  
trinketean.

**ABADIÑO San Blas jaiak**  
**Garagardo dastaketa**  
**Garai Brewing**  
**Companyren eskutik;**  
**ostean, hanburgesa-jana,**  
19:00etan, txosnagunean.

**ABADIÑO San Blas jaiak**  
**Storm taldearen**  
**kontzertua** 21:00etan,  
gaztetxean.

**DURANGO musika**  
**Holy Bouncer eta**  
**Meridian taldeen**  
**kontzertua,** 21:30ean,  
Plateruenean.

### Otsailaren 3an

**BERRIZ ipuin kontalaria**  
**‘Uretako ipuinak’ Eneritz**  
**Artetxeren eskutik,**  
12:15ean, Kultur Etxean.

**ABADIÑO bertsolaritza**  
**Txabar Altube, Aitor**  
**Bizkarra eta Garikoitz**  
**Sarriugarte bertsolarien**  
**saioa,** 12:00etan,  
Ferialeku plazan.

**ABADIÑO herri kirolak**  
**I. Urrezko Aizkolari**  
**emakumeen banakako**  
**txapelketa (Irati**  
**Astondoa - Alazne**  
**Etxaburua), eta XVIII.**  
**Urrezko Aizkolari**  
**gizonezkoen binakako**  
**txapelketa (Aitzol Atutxa**  
**II-Julen Alberdi Txikia**  
**IV / Ugaitz Mugertza**  
**II - Joseba Otaegi),**  
12:00etan, probalekuan.

**ABADIÑO musika**  
**Tejonprieto y los**  
**Motxilotes,** 13:00etan,  
gaztetxean.

**ABADIÑO San Blas jaiak**  
**Lotxo taldeagaz**  
**erromeria,** 17:00etan,  
Ferialeku plazan.

**ABADIÑO San Blas jaiak**  
**DJ Alus eta DJ jotatxo,**  
17:00etan, Elkartasun  
lonjan.



12:00etan bertsoak kantatuko dituzte Txaber Altubek, Aitor Bizkarrak eta Garikoitz Sarriguartek. Eguerdian aizkolaria egongo dira probalekuan, eta arratsaldean idi probak. Gainera, Lotxok erromeria eskainiko du Ferialeku plazan.



## Martxoaren 8ko greba feministari begira

**FEMINISMOA** | Martxoaren 8an greba feminista egiteko deia zabaltzen ari dira Euskal Herrian, eta Durangon ere badabilta egun horretara begira. Herriko Plataforma Feministak greba eguna era parte-hartzailean antolatzeko proposamena egin du, eta joan zen urtarrilaren 21ean lehenengo batzar zabala egin zuten. Hurrengo domeka honetan izango da, otsailaren 4an, 11:00etan, Andragunean. Gero, otsailaren 18an eta martxoaren

4an ere batzea aurreikusi dute. Hala ere, batzarretara joan ezin eta ekarpenak egitea gura izanez gero, [grebafeministadurango@gmail.com](mailto:grebafeministadurango@gmail.com) helbidera idaztea eskatu dute.

Greba ereduari buelta bat eman gura diote feministek. "Greba iruditegi eta kontzeptua aldatu edota birpentsatu gura dugu; sare bat sortu, ikusezinak diren lanak ikustarazi, aitortza egun bat izan...", esan dute prentsa oharrean.

**ZORNOTZA antzerkia**  
**'Linbo Planeta'**  
haurrentzako antzezlan, 18:00etan, Zornotza aretoan.

**ABADIÑO San Blas jaiak**  
Elvis Caino DJ, 20:00etan, gaztetxean.

**DURANGO musika**  
Mecano Sing-Along, 21:00etan, Plateruenean.

**ABADIÑO San Blas jaiak**  
DJ Miao, 22:00etan, txosnagunean.

### Otsailaren 4an

**IZURTZA azoka**  
Txitxiburduntzi eguna, 12:00etan, plazan.

**DURANGO deialdia**  
Santa Ageda koplak abestera irteteko deialdia, 12:00etan, Aramotz auzoan.

**ABADIÑO emanaldia**  
Done Zezili abesbatzak Santa Agedaren koplak abestuko ditu kalerik kale, 12:00etan.

**ZORNOTZA kantaldia**  
Agate Deunaren koplak abesteko deialdia Armendola kultur elkartearen eskutik, 13:45ean, Konbenio plazan.

**ABADIÑO jaia**  
Txitxiburduntzia, 13:00etan, Zelaietako eskoletan.

**ABADIÑO antzerkia**  
'Murren bidaia' umeentzako antzezlan Behibi's konpainiaren eskutik, 17:00etan, Txanporta kultur etxean.

**ABADIÑO herri kirolak**  
Idi probak, probalekuan, 18:00etan.

### Otsailaren 6an

**DURANGO hitzaldia**  
'Euskaldunak II. Mundu Gerran' Iñigo Bolinagaren eskutik, 17:30ean, Arte eta Historia museon.

### Otsailaren 10ean

**DURANGO emanaldia**  
Surrandien konpartsa kalerik kale, 18:00etan, Kriskitinen entsegu lokaletik.

### Otsailak 5

**IURRETA ikastaroa**  
'Dislexia. Ikasteko zailtasunak. Eskola-porrota' tailerra guraso eta profesionalentzat, Dislebiren bitartez, 18:00-20.00 bitartean, Ibarretxe kultur etxean.

### Otsailean zehar

**DURANGO ikastaroa**  
Adikzioen prebentziorako zerbitzuek antolatutako ikastaroak, Durangoko Amankomunazgoko ikastetxeetan. Izen-ematea urtarrilaren 19ra arte zabalik. Deitu 94 620 05 20 zenbakira edo idatzi [prevencion.mdurango@bizkaia.org](mailto:prevencion.mdurango@bizkaia.org) helbiderea.

### Urtarrilaren 15etik otsailaren 9ra arte

## Urtarrileko agenda



2	<b>"IURRETAKO HERRI BIBLIOTEKA"</b> 17:00 Frantseseko irakurketa kluba
4	<b>"AITTE SAN MIGEL JAI BATZORDEA" "BASOKOIPETSU EGUNA"</b> 17:30 Txitxiburduntzi Aita San Migel plazan
5	<b>"IURRETAKO HERRI BIBLIOTEKA"</b> Paperezko hegoak: haurrentzako irakurketa kluba 17:00 LH 3. Maila 18:00 LH 4. Maila <b>"IURRETAKO HERRI BIBLIOTEKA- GIZARTE ONGIZATEA"</b> 18:15 Emakumeen literatur tailerra <b>"IURRETAKO HERRI BIBLIOTEKA"</b> 18:00-20:00 Dislexiari buruzko tailerra. Hizlaria: Mariñe Soto (Dislebi)
6	<b>"IURRETAKO HERRI BIBLIOTEKA"</b> Helduentzako irakurketa kluba 17:00 - 18:30 Emakume garbitzaileentzako gida / Lucia Berlin 18:30-20:00 Azken patriarka / Najat El Hachmi Dislexia: Irakurketa errazeko klubak 17:00 L.H. 3-4 mailak (8-10 urte) 18:00 L.H. 5-6 mailak (11-12 urte)
7	<b>"IURRETAKO HERRI BIBLIOTEKA"</b> 10:00-11:00 Helduentzako XL Kluba

**ZORNOTZA deialdia**  
Emakume Nekazari eta Artisauen XXI. Azokan parte hartzeko izen-emate epea zabalik, Eskariak Gizarte Ekintza Sailean aurkeztu beharko dira 08:30etik 14:30era (Nafarroa Zentroko 1. solairua) edota posta elektronikoz bidez [berdintasuna@amorebieta.net](mailto:berdintasuna@amorebieta.net) helbidean.

### Otsailaren 2tik 25era arte

**BERRIZ erakusketa**  
Xabier Alconero Martinen 'Madrid grabatuak' erakusketa, asteburuetan ere zabalik, Kultur Etxean.

### Otsailaren 7tik maiatzaren 30era arte

**BERRIZ ikastaroa**  
Emakumeen jabeakentza eskolaren baitan, Mindfulness ikastaroa, 12 urtetik gorako emakume berriztarrentzat, eguaztenetan 16:30-18:30 bitartean, Kultur Etxean.

### Otsailaren 16tik 18ra arte

**DURANGALDEA irteera**  
Zaldai eta Asuntze mendi taldeek eski irteera antolatu dute, (izena emateko azken eguna, otsailaren 12a), informazio gehiago [www.zaldaimenditaldea.org](http://www.zaldaimenditaldea.org) helbidean.

## Zinema

:: Berriz KULTUR ETXEA

**Sagu eta Pagu**  
barikua 2: 18:15  
domeka 4: 17:00

:: Durango ZUGAZA

• **El cuaderno de Sara**  
barikua 2: 19:30/22:00  
zapateria 3: 19:30/22:30  
domeka 4: 19:00/21:30  
astelehena 5: 18:30/21:00  
martitzena 6: 20:00  
eguzatena 7: 20:00

• **C'est la vie**  
barikua 2: 19:30/22:00  
zapateria 3: 19:30/22:30  
domeka 4: 19:00/21:30  
astelehena 5: 18:30/21:00  
martitzena 6: 20:00  
eguzatena 7: 20:00

• **Tres anuncios en las afueras**  
barikua 2: 19:30/22:00  
zapateria 3: 19:30/22:30  
domeka 4: 19:00/21:30  
astelehena 5: 20:00  
martitzena 6: 20:00

• **Cavernicola (euskaraz)**  
zapateria 3: 17:00  
domeka 4: 16:30

:: Elorrio ARRIOLA

• **Tres anuncios en las afueras**  
zapateria 3: 22:00  
domeka 4: 20:00  
astelehena 5: 20:00

• **Oihaneko koadrila**  
domeka 4: 17:00

:: Zornotza ARETOA

• **Tres anuncios en las afueras**  
barikua 2: 20:15  
zapateria 3: 22:00  
domeka 4: 20:00

• **Gatos. Un viaje de vuelta a casa**  
domeka 8: 17:30/20:30

• **Pieles**  
domeka 8: 17:30/20:30

• **Toc Toc**  
barikua 6: 19:30/22:00  
zapateria 7: 17:00/19:30/22:30  
domeka 8: 17:00/19:15/21:30  
astelehena 9: 18:30/21:00  
martitzena 10: 20:00  
eguzatena 11: 20:00

• **La montaña entre nosotros**  
barikua 6: 19:30/22:30  
zapateria 7: 19:30/22:30  
domeka 8: 17:00/19:15/21:30  
astelehena 9: 18:30/21:00  
martitzena 10: 20:00  
eguzatena 11: 20:00

# “Amesten genuenaren eta garenaren arteko talka dakar obrak”

‘Hozkailua’ antzezlanaren taularatuko du Huts Teatrok, gaur, 20:00etan, Durangoko San Agustin kulturgunean. Unai Iturriagak idatzitako testutik sortutako obra da

**DURANGO • AITZIBER BASAURI**

**Apirilean estreinatu zuten, Aulestian, aspaldiko hiru lagun elkartzen dituen Hozkailua antzezlanaren. Umore beltzez jantzitako obra da, Unai Iturriagak idatzitakoa, eta pozik dago emaitzagaz durangarra. Gaztaroan amestutakoa eta helduaroan garena jarriko ditu aurrez aurre obrak.**

**Nola sortu zen Hozkailua antzezlanaren idazteko aukera?**

Betidanik izan dugu harremana Ander Lipusek eta biok, eta *Franco-ren bilobari gutuna* antzezlanagaz zerbait, formatu txikiko zerbait egin gura zuela esan zidan. Erraz eta asko mugitzeko modukoa, antzokietara mugatu gabe edozein toki-tara heltzeko modukoa. Obra txiki bat. Hainbat bider batu ginen, eta gure arteko elkarriketa horietatik sortutako istorio bat izan da. Izan ere, ez zegoen ezer. Bai bagenekien zerbait gaur egungoa eta belaunaldi bati lotua izan behar zuela eta, ez dakit nola, eskeleto baten ideia azaldu zen. Horrela abiatu zen *Hozkailuaren* gaia. Esan behar da *Los tres entierros de Melquiades Estrada* filma ere nahiko presente dagoela.

**Pozik zaude emaitzagaz?**

Bai. Aulestian estreinatu zuten, apirilean, oso testuinguru kuriosoan. Politia izan zen. Durangoko eza-gun batek han esan zuen moduan ‘Zinema Paradiso’ ematen zuen. Antzerki munduko jendea zegoen, baina, batez ere, herritarrak; ume, nagusi... denetarik. Pozik, barre asko egin zuelako publikoak; eta harrirituta ere bai, espero ez duzun unean egin dutelako barre, eta espero duzun unean, ez. Baina, batez ere, pozik nago Huts Teatrotako pozik daudelako eta obra asko mugitzen ari delako, gura zuten lez.

**Egoera absurdo batetik abiatzen da ‘Hozkailua’. Maite eta Karlos lagun min izandakoak herririk herri ibiliko dira Jimmy lagunaren hilotza gordetzen duen hozkailu batez.**

Hala da, bai. 80ko hamarkadan banatu egin ziren lagunak dira Maite (Patricia Urrutia) eta Karlos (Ander Lipus), biak Londresera joandakoak, eta, orain, berriro elkartu dira hil den hirugarren lagun baten aitzakian. Orduan amesten genuenaren, egin gura genuen horren, eta orain garenaren arteko talka dakar *Hozkailua* antzezlanak. Lagunari lur emateko, haren herria topatu guran dabilta Maite eta Kar-

los, eta hori bakoitzaren denbora —Londresen geratu zen Maite eta Karlos herrira bueltatu zen— nola joan den ikusteko aitzakia izango da; bien kontraesanak azaleratzeko, garai bateko ametsei uko nork egin dien ikusteko, burua nork makurtu duen edo ez ikusteko...

**Adiskidetasuna da obraren oinarria?**

Bai. Askotan ‘kolega’ berba agertzen da obran. Benetako lagunak hala izaten jarraitzen du, urteetan ikusi ez arren. Baina, berriro elkartzean, harreman hori proban jarriko da: konpartitu zuten mundu hori oraingora ekartzean nola funtzionatzen duen jarriko da proban. Bidean isolatuta daude benetako lagun bi, kokoteraino, eta beraiekin hirugarren lagun bat daramate hozkailuan. Egoera absurdo batek sortzen dituen tentsio eta egoera komikoak azaltzen dira *Hozkailuan*.


**Umore beltza erabili duzu hori guztia azaleratzeko?**

Bai. Bestela ere beltza, absurdoa da planteamendua. Hala ere, desdramatizatzeko era bat ere bada. Norberaren buruari barre egitea ona omen da, baina beti ez da erraza izaten. Ispilu baten aurrean jarri behar dugu gure buruari barre egiteko, eta batzuetan ez gara jartzen. Igual norbait beharko dugu ispluarena egiteko. Neurri batean, Maite eta Karlos, biak dira ispilu elkarrentzat; eta horrek esan gura du orain dela 20 urte utzi zuten ‘ni’ horregaz topatzea. Elkarregaz egon ziren garai hura ere beltzagaz, punk-agaz lotu daitekeen garaia da, eta orain, oster, aldatuta datoz, bien arteko lotura berdina den arren.

**Begirada kritiko bat du obrak?**

Zer ginela uste genuena, zer izan gura genuen eta orain non gauden. Hori da *Hozkailuan* planteatzen dena. Ez da kritika bat, ez epaia; konstatazio bat da. Gauzak aldatu egiten dira. Ukaezina da hori. Kontua da zein den egindako irakurketa, nolako izan den bidaia hori eta ispluari begiratzean zer ikusten dugun, konforme gauden, zeintzuk kontraesan ikusten ditugun... Denok

“**Egoera absurdo batek sortzen dituen tentsio eta egoera komikoak azaltzen dira ‘Hozkailua’n’**”



**Unai Iturriaga Zugaza-Artaza**  
‘Hozkailua’ antzezlanaren idatzi du  
**Durango | 1974**

egin dugu bidaia hori, *Hozkailuan* azaltzen den unean edo besteren batean. Inoiz egingo ez genituen hainbat gauza egin ditugu, baita orduan amesten ez genituen asko ere. **Musikak ere garrantzia hartzen du?** Garai hura irudikatzen, orduko abesti ezagun asko erabili dira, eurretako asko himno bihurtutakoak. Himno bihurtzen diren abesti askok belaunaldiak gaintzen dituzte, eta garai bati kontestu bat emateko oso baliogarriak dira: norbera garai batera eramateko. Nahikoa dira une batean, eta 20 urteko tartegaz, kantuan jartzeko eta sortutako kontraesana azaleratzeko. Asier Ituarte egin du soinu banda.

**Gidoigintzan aritua zara. Antzezlanaren idaztean pauso bat gehiago ematea izan da?**

Lipusen proposamena aukera polita iruditu zitzaidan. Gustatzen zaizkit halako lanak, beti ere

bere eskariz badator. Ez naiz antzerki idazlea edo antzerki mundukoa; bada, makulua behar dut sorkuntzarako, lagun bat. Badi-tut gauza batzuk kontatzeko, baina jardun bakoitzak bere kodeak ditu: antzerkiak, zinemak, literaturak... ez ditut menperatzen eta laguntza behar dut. Oso polita da antzerkia, bizia, baina egia da, idatzi dudanean, beti izan dela inoren eskariz.

## Komikigintzan ez ezik, Durango 1936 elkarteagaz ahozko artxiboa sortzen ere ari da lanean Unai Iturriaga

Duela urte batzuk marrazterea “ausartu” zenetik, etenik ez duen haria ere bada komikigintza bertsolari durangarraren bizitzan. Gaur egun, GAUR8 eta JAKIN aldizkarietan kolaboratzen du, eta H28 proiektuan ere ibili da. Horrez gain, Xabiroi komiki aldizkarirako ere idatzen du Iturriagak. Haur Besoetakoa pertsonaiaren istorioak argitaratzen

jarraitzen du Alex Xanvi marrazkilariaz elkarlanean. 2014an aldizkarian argitaratutakotik aukeraketa bat egin eta komiki-albuma ere kaleratu zuten bien artean, eta, lasterrera, bigarren albuma kaleratu gura dute, azaldu duenez. Afizio baina, “pasioa” du komikigintza oraindik plazaz-plaza jarraitzen duen bertsolari durangarrak.

**Memoria historikoa**

Bestalde, Durango 1936 elkar-teak frankismoaren biktimen inguruan egindako bideoak sare-ratzeko lanean ere ari da Iturriaga, duela hiru urtetik hona: “Oso gustura ari naiz. Lan itzela ari da egiten Durango 1936 elkartearen memoria historikoari dagokio-



nez”, adierazi du. Ia 1.100 bideo landu dira, “Durangaldean gerra garaia eta gerraostea nola bizi izan zuten ulertzeko oso ondo dagoen ahozko artxiboa” osatuz. Urtero hamar grabaketa egiten ditu Durango 1936 elkarteak.

# Formatu txikian itzuliko da Miren Narbaiza MICE proiektuagaz

Domekan, otsailak 4, 13:00etan, Miren Narbaizak bere lehenbiziko bakarkako lana aurkeztuko du; Joseba Baleztenaren laguntza izango du Plateruenero oholtza gainean



2017ko urria eta abuztua bitartean grabatu zuten diskoa.

MUSIKA • ARITZ MALDONADO

Plateruenero aperitifa sessions delakoaren beste hitzordu bat egongo da domekan, hilak 4. MICEk bere lehenbiziko lana aurkeztuko du bertan. Miren Narbaiza musikaria dago proiektu honen atzean, eta izen bereko lana defendatuko du Plateruenero oholtzan. "Itzultzeko gogoz nago eta espero dut Durangaldeko musikazaleak igande-pasa etortzea", azaldu du Narbaizak. Hainbat bider egon da aurretik eibartarra Plateruenero oholtza gainean. "Napoka Iriagaz jo izan dugu Platerueneroan, Joseba B. Lenoirregaz, Perlakegaz... Gustura aritu izan naiz beti", adierazi du. MICE proiektuagaz abenduan ere egon zen Narbaiza EHZ jaialdiarekiko elkartasun kontzertuan. Oraingoan, ostera, "formatu txikian" izango da kontzertua, gitarra akustiko eta elektrikoagaz, pianoagaz eta ahots jokoagaz; Joseba

Baleztenak lagunduko dio Narbaizari.

Zortzi kantuko lana Berako Atala estudioan grabatu du Miren Narbaizak; Iñigo Irazoki arduratu da grabazioaz. Narbaizak Joseba Baleztenaren eta Ilargi Agirreren laguntza izan du grabaketa prozesuan. Domekako emanaldian, diskoa osatzen duten abesti sortaz gainera, bestelako sorpresaren bat egongo dela iragarri du. "Disko guztia aurkeztuko dugu eta kanta berri pare bat ere prestatu ditugu, baita bertsioren bat edo beste ere", esan du. Diskoak harrera ona izan du, eta iaz kaleratu zenetik, hamaika zuzeneko eskaini ditu MICE proiektuak, bakarka zein taldean; besteak beste, Bergaran eta Gasteizen eskaini dituzte kontzertuak.

**Plateruenero aperitifa sessions delakoaren hitzorduagaz bat egingo du Miren Narbaizak**

Napoka Iria taldean hainbat urtez egon da eibartarra, bikoiteak 2017ko uztailaren 7an bere azkeneko kontzertua eskaini zuen arte. Domekako emanaldia 13:00etan hasiko da.

Geure Durangaldea

Antton Uriarte Salterain Musikaria



Ahal dela, nahiago dugu ez

Gure blokean behintzat inor ez da salbu. Ataritik laugarren pisura igotzen 27 segundo behar ditu igogailuak gurean, eta bizilagunok eguraldiaz dihardugu eguralditik munduan den txokorik isolatuenean. Ahal dela, isilunerik ez.

Haurrak ginela ere eskolan ez zen bestelako jolasik harik eta orri zuria kolorez bete-bete egin artean, espazio txiki bat margotu gabe uztea krimetzat zuen belaunaldikoak gara gu. Ahal dela, zuriunerik ez.

Nagusia gogotan jostatzeko unek ere planifikatuak izan beharra dute kasik zereginez hipersaturaturiko bizi erritmo honetan, ahal dela, pausarik ez.

Etxean bakarrik egon eta telebista zein irratia pizten dugunetakoak gara gu, dezibelioen konpainian bada ere sikeran, ahal dela, bakardaderik ez.

Zerbait zein norbait faltan dugunerako, hortxe dira prest lagunak, tresnak zein baliabideak atoan ordezkagai, zuloa ahalik eta lasterren birbeteta gera dadin. Hemen ere ahal dela, hutsunerik ez.

Argazkiei filtroak jartzeko erraztasun berarekin ikasi dugu egunerokoan maskarak janzen. Nahi dena bistaratu eta behar dena ezkutatzeko asmoz. Ahal dela, biluztasunik ez.

Eta horrela goaz egunean aurrera, gure betekizunez lepo beteta. Norbere isilune, zuriune, bakardade zein hutsuneekin biluzik topo egin baino, aukeran, ahal dela, nahiago dugu ez.

ERAKUSKETA • ARITZ MALDONADO

Eduardo Chillidaren *Oihartzunak* erakusketagaz ireki ditu atek, berriz, Durangoko Arte eta Historia museoak. Hain zuzen ere, erakusketaren harira hitzaldia egongo da otsailaren 8an. Xabier Lakak *Lo que es de uno es de casi nadie. Chillida en el espacio público: entre el hecho estético personal y la construcción simbólica colectiva* hitzaldia eskainiko du. 19:00etan hasiko da.

Erakusketa gelan, egile donostiarraren 27 obra erakutsiko dira; obra horietako hainbat lehenbiziko jarriko dira ikusgai.

Eraberritze obrak irisgarritasun baldintzak betetzeko egiteaz gainera, erakusketa-gelei beste zentzu bat ematen saiatu direla esan du Garazi Arrizabalaga museoko zu-

## Oihartzunak erakusketagaz berrireki ditu atek Arte eta Historia museoak

Otsailaren 8an Xabier Laka EHUKo doktore eta eskultoreak hitzaldia eskainiko du erakusketaren harira; 'Lo que es de uno es de casi nadie' 19:00etan hasiko da

zendariak. "Begirada batez ulertu daiteke Arte Garaikidea orain; hasi figuratibotik eta abstraktura", adierazi du.

Bestalde, Arte eta Historia Museoak ordutegi berria du ostera zabaldu denetik. Martitzenetik barrikura goiz eta arratsalde egongo da zabalik (10:00-13:00/17:00-20:00); zapatuetan, berriz, 11:00-14:00 eta 17:00-20:00 izango da ordutegia. Domeketan ere zabalduko ditu atek museoak, goizez bakarrik.



Urtarrilaren 25ean berrinauguratu zuten museoak

**Hozkailua**  
Huts teatroa  
Otsailaren 2a,  
20:00etan

San Agustin KULTUR GUNEA  
SABANGORIALDEA

Sanagustinalde, 12 · Tel.: 946 030 021 · sanagustin@durango.eus

www.plateruena.eus

PLATERUENA

PLATERUENA Kafe Antzokia  
Landako Hiribidea, 4A  
DURANGO  
Tel.: 946 030 300  
jatebxea@plateruena.net

Otsailak 2 21:30etan  
**HOLY BOUNCER + MERIDIAN**  
Filmea

Otsailak 3 21:00etan  
**MECANO SING ALONE**  
Kontzertua

Otsailak 4 13:00etan  
**MICE**  
Aperitifa session

**ARETO-FUTBOLA** • JOSEBA DERTEANO  
Izaeran eta gustuetan antza dutela diote. Areto-futbola da partekatzen duten gustuetako bat. Kantxan, etxean zein aisialdian areto-futbola arnasten dute, eta orduak eman ditzakete horri buruz berba egiten.

**Areto-futbola betidanik bizi izan duen pasioa da?**

**Gorka Barrenetxea:** Nik futboleko jokatu nuen gazte mailara arte. Ondoren, Amorebietako gazteen entrenatzaile ibili nintzen. Iazko azken partiduetan batu nintzen Beti Gol taldera. Partiduetarako estrategiak pentsatzea, buruari bueltak ematea... hori guztia asko gustatzen zait.

**Irati Barrenetxea:** Ni ere futbol 11n hasi nintzen, 6 urte gaz. Amorebietan, Arratian eta Santurtziko Peña Athleticen ibili nintzen. Athleticeguz teknifikazio saioak ere egin nituen. Ondoren, Kataluniara joan nintzen ikastera, eta itzuli nintzen Beti Golera batu nintzen.

**Bikien artean lotura berezia dagoela esan ohi da. Horrela da zuen kasua?**

**I.B.:** Ez esaten den moduan. Hau da, norbaitek Gorkari zerbait okerra egiten badio, kontuak eskatuko dizkiot eta elkar defendatuko dugu. Baina beste mito hori, batari gertatzen zaiona besteak sentitzen duela eta antzerakoak... ez da gura kasua.

**G.B.:** Oraingo ez, behintzat. Izaeran eta gustuetan bai, horretan badugu antza.

**I.B.:** Eta sarritan gauzak ikuspuntu beretik ikusten ditugu.

**Zuen kasuan ez dago bata bestea baino nagusiago edo gazteagoa den neba-arrebarik. Bizitzako etapak une berean bizi izan dituzue. Horrek konplizitate berezia sortu du?**

**I.B.:** Kasu batzuetan bai, baina neska eta mutila garenez, beti izan dugu lotsa apur bat gai batzuei buruz berba egiteko. Futbolagaz eta areto-futbolagaz desberdina da.

“**Gorka Barrenetxea:**  
“Askok esperientzia handirik ez dutenez areto-futboleko, pazientzia behar da”

**Entrenamenduetan edo kantxan, zertan igartzen da bikiak zaretela?**

**G.B.:** Badakit Irati zelakoa den, zelan pentsatzen duen eta zer egin dezakeen.

**I.B.:** Egun txarra badaukat, berak badaki zelan erreagionatuko duan, eta horren arabera jokatzeko du. Horretan igartzen da anai arrebak garena. Baina honek beste alde ere badu. Kantxan errieta egiten badit, etxera noanean ere errieta egingo dit.

**G.B.:** Baina ondo jokatu badu, hor ere bietan esango diot, kantxan eta etxean. Badakizu, bikiak onerako zein txarrerako.

## “Areto-futbolari edo partiduei buruz berba asko egiten dugu etxera heltzean; batzuetan orduak eman ditzakegu solasean”

Egun berean eta bata bestearen atzetik jaio ziren Gorka eta Irati Barrenetxea. Bikiak dira. Txikitatik futboleko aritu dira eta talde bat elkarrekin ere entrenatu dute. Gaur egun Beti Gol taldeko entrenatzailea da Gorka eta hango jokalaria Irati.



**Gorka Barrenetxea**  
**Iturbe | 1992**  
Beti Gol areto-futboleko entrenatzailea.

**Irati Barrenetxea**  
**Iturbe | 1992**  
Beti Gol areto-futboleko jokalaria.

**Beraz, kantxan gertatzen dena ez da kantxan geratzen?**

**G.B.:** Areto-futbolari edo partiduei buruz berba asko egiten dugu etxera heltzean. Batzuetan orduak eman ditzakegu solasean.

**I.B.:** Egunero aritzen gara. Batzuetan gehiago eta besteetan gutxiago, baina egunero zerbait. Sasoi batean, gazteen futbol talde bat elkarregaz entrenatu genuen.

**Eta zelan irten zen abentura hori? Ono konpontzen zineten?**

**I.B.:** Ondo. Arazo gehiago izaten nituen gurasoekin Gorkagaz baino. Biok pisu berdina geneukan erabakietan, baina ez gintuzten berdin tratatzen. Normalean, Gorka hartzen zuten ‘benetako’ entrenatzailezat. Gorka partidu batera joan ezin bazen, honakoa esaten zidaten: “Baina nola joango zara zu bakarrik, neska bat bakarrik!”. Matxismoa zen. Tira, ez nien kasurik egiten.

**G.B.:** Horrela zen, bai. Ez zuten serio hartzen. Baina gure artean

**Irati Barrenetxea:**  
“Egun berean areto futbol partidu bi ikustera joan gaitzake gustatzen zaigulako”

ez zegoen lehenengo eta bigarren entrenatzailek. Biok pisu berdina geneukan.

**Areto-futboleko, zer dohain eta zer gabezia ikusten diozue elkarri?**

**G.B.:** Irati txikitatik futboleko ibili denez, teknika handia du. Hobetu beharrekoa? Alderdi fisikoa, beharbada. Baina dohainak eta gabeziak ondo konpentsatzen ditu.

**G.B.:** Taldeagaz asko inplikatu da. Aurkarien partiduak ikustera joaten da eta dena aztertzen du. Eta hori ona edo ez hain ona izan daiteke batzuetan. Hau da, buruari buelta gehiegi ematen dizkio batzuetan. Ez taktika aldetik bakarrik, jokalarien artean arazoren bat badago edo antzera-

ko kasuetan ere bai. Beti arazoak konpondu guran ibiltzen da.

**Gorka, aurkarien partiduak ikusten joaten zara?**

**G.B.:** Bai, eta sarritan Iratigaz. Bera bere mutil-lagunagaz eta ni nire neska-lagunagaz. Egun berean partidu bat zein bi ikustera joan gaitzake. Goiz-pasa edo egun-pasa. Kontua ez da aurkariak zelakoak diren aztertzea. Gustatzen zaigulako joaten gara, gozatzen dugulako.

**Beti Gol iaz sortu zen, ondo pasatzeko helburu bakarragaz. Baina partidu ia denak askogatik galtzen zenituzten. Aurten lehiara bideratu zarete eta hiru garaipen daramatza-**

“**Irati Barrenetxea:**  
“Oso lehiakorra naiz. Ondo jokatzeko eta partiduak irabazten gehiago gozatzen da”

**zue. Lehiakorra sentitzea ondo pasatzeko ezinbesteko osagaia da?**

**I.B.:** Niretzat, bai. Oso lehiakorra naiz. Galduta ez dut gozatzen, eta hamar gol jasota, oraindino gutxiago. Ondo jokatzeko, lehiakorra sentitzen eta partiduak irabazten gozatzen da. Partidu berdinduetan izaten den tentsioa gustatzen zait.

**Zelan hartu zenuten erabaki hori?**

**I.B.:** Bazkide denok batu eta bozketan egin genuen: ordura arte moduan jarraitu edo arau batzuk jarri eta konpromiso maila bat bermatu; horixe zen erabaki beharrekoa, eta bigarrenak irabazi zuten.

**G.B.:** Lehen galdetzen zen: “Nor dator partidura?”. Orain galdera hau izaten da: “Nor ez dator partidura?”. Ezer esan ezik denok datozela suposatzen da. Askok areto-futboleko esperientzia handirik ez dutenez, pazientzia eduki behar da, baina taldearen garapena nabarmena izan da.



# Anbotoren lagunak



**Egin zaitez  
Anbotoren Lagun,  
eta atera etekina  
txartelari!**

**Babestu proiektua urtean  
30 euroren truke**

**Honako denda eta zerbitzuek deskontuak aplikatuko dizkiete ANBOTO txartela duten erabiltzaileei:**

- A-METZ DEKORAZIOA · BETIXU JATETXEA · COLOR PLUS · EPOCA SUKALDEAK · EUREKA! ZIENTZIA MUSEOA
- GIMNASIO ZIRKIN · HITZ LIBURU-DENDA · HONTZAEXTREM ABENTURA PARKEA · ITAI ARROPA ETA OSAGARRI DENDA
- IURRETA KOPISTEGIA · KATXARRO JATETXEA · KIROL ERROTA GIMNASIOA · LANDAKO OPTIKA
- MANCISIDOR 1866 BITXI-DENDA · NATURALKI BELARDENDA-EKODENDA · OPEN KLUB · PLATERUENA KAFE ANTZOKIA
- UNAMUNZAGA ETXEBARRIA · HORTZ-KLINIKA · UNDARRI BIKE · URRIKE LIBURU-DENDA · UR URDAIBAI

# “Arazoak sortzen diren heinean talde lanean konpontzea betegarria zait; adrenalina hori gustuko izan dut”

Lan motibagarria bezain neketsua delako, Maria Eugenia Etxebarriak iragarri du ez dela berriro hautagai aurkeztuko Amorebieta klubeko presidente izateko

**FUTBOLA • JOSEBA DERTEANO**

Maria Eugenia Etxebarriak legegintzaldi bat egin du Amorebieta kirol klubeko presidente eta ez da berriro aurkeztuko. Martitzenean klubak Zelaieta zentroan egindako batzar orokorrean jakinarazi zuen. Amorebietak ez du emakumezko beste presidenterik ezagutu bere historian, ezta Bigarren B mailak ere azken urteetan. Poz handia eman dion klubetik nekatuta doala dio. “Heltzen da une bat lan karga handia hartzen duzuna eta bizitza pertsonaletik denbora asko eskatzen dizuna. Gogorra da”, azaldu du Etxebarriak.

Buruko minak aipatzean, diru kontuak ditu buruan, xoxak zelan lortu. “Ziurgabetasun handiko mundua da. Enpresa bateko marketing arduradunak proiektu interesgarria dela esaten dizu, baina gero kontabilitate sailera pasatzen dute eta hauek sei hile barru deitzeke esaten dizute. Bide ofizialeko diruak ere berandu eta txarto heltzen dira. Esaterako, oraindik Kirol Kon-



Amorebieta klubeko historian emakumezko presidente bakarra izan da eta Bigarren B Mailan ere ez dago beste adibiderik azken urteetan.

tseilu Nagusiko 2016ko diru atal bat kobratzeko zain gaude. Azkenean, soldatak ordaintzeko eta kluba ondo eramateko filigrana asko egin behar dira”, onartu du. Denbora baterako eramangarria da, baina, azkenerako, “nekatu egiten du eta

gauak eta gauak ematen dituzu gaiet bueltaka”, adierazi du.

Gainera, hasierako Zuzendaritza Batzordea kideak galtzen joan da apurka, eta orain jende gutxiren bizkarrean dago erantzukizun osoa. Etxebarria ez ezik, zuzendari-

tzako gainerako kideak ere ez dira hauteskundeetara berriro aurkeztuko. Bloke moduan hasi ziren eta horrela amaituko dute. Martitzeneko batzarrean hauteskunde prozesuari hasiera emateko pausoak eman zituzten.

**Unerik onenak harrobian**

Diru-zorroa elikatzeko egin beharreko lana kenduta, “gainerako momentu denak onak” izan direla dio Etxebarriak. Bereziki harro dago harrobiko lanagaz, eta “ondo bideratuta dagoen proiektua” dela uste du. “Amorebietari buruz berba egiterakoan, denak lehenengo taldeari buruz berbetan aritzen dira, baina oinarri futboleko talde dezente ditugu eta asko oso ondo dabilta”, gehitu du.

Eguneroko lana ere gustura egin duen zerbait izan da. “Arazoak sortzen diren heinean talde lanean konpontzea betegarria da. Adrenalina hori gustuko izan dut”.

Bigarren B Mailan ezagutu dituen presidenteen oroitzapen ona daramala dio, sarritan terapia moduan funtzionatzen duelako. “Palakoetan berba gutxi egiten da partiduei buruz. Batak besteari gure arazoak kontatzen ibiltzen gara sarritan, eta besteen iritziak jasotzeak asko laguntzen du”, onartu du Etxebarriak.

## Kulturala lidertzari eusteko puntu bila doa Beasainera

**FUTBOLA • J.D.**

Beasainek eta Durangoko Kulturalak bihar 16:30ean Loinatz futbol-zelaian jokatu duten partidua ikustekoa izango da. Hirugarren Mailako liderra sailkapeneko laugarrenaren kontra. Lau puntu baino ez daude talde bien artean.

